



**San Martin
azoka Zegaman**

**San Martin
jaiak Ataunen
eta Araman**

**Kepa Junkera
Iparraldeko
ikastolen alde**

**Jesus
Etxeberriari
agur**

**Alemaniarrek
Zegaman
kaikuak egiten**



JOXE TELLERIA, S. M. **Aseguruak
Korreduria**

**ZURE BIZITZA ETA ONDASUNAK
ONDO ASEGURATU NAHI BADITUZU, BADAKIZU NORA JO**

☎ 943 88 26 43 - 943 88 71 55 - Faxes: 943 88 71 55

Erauskin Plaza, 2

BEASAIN

GOIERRIKO ODOLKIGILEAK



Arg.: Xabier Mujika

OIANGUREN HARATEGIA



- ✓ Odolki eta mondejuak
- ✓ Txorizo eta tripakiak
- ✓ Baserriko haragia

Gipuzkoa, 15 ☎ 943 88 01 42 **ORDIZIA**

HESTEBETEAK



"ORMAIZTEGI"
ODOLKIAK

Nekazaritza eta
Arrantza Sailak
baimendua

JESUS MARI DEBA


- Barazki eta arroz-odolkiak
- Mondejuak

Bereziak harategi eta
jatetxeetarako

Anduaga Industrialdea, 9
Zumalakarregi Plaza, z/g

☎ 943 72 17 10
☎ 943 88 26 59

**EZKIO-ITSASO
ORMAIZTEGI**



OIARBIDE HARATEGIA

Odolkiak eta bertako haragia

Elosegi, 52
Elosegi, 15

☎ 943 88 17 17
☎ 943 16 05 16

LAZKAO

Olano
Harategia



KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

Odolki eta
etxeko haragitan
berezitasuna

Andra Mari, 3 ☎ 943 88 07 78 **BEASAIN**



inaki Zubeldia
Harategia Urdaitegia

K. Nagusia, 14 ☎ 943 88 27 47 **BEASAIN**

KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

Bertako haragiak,
odolki, lukainka,
saltxitxa eta aurrez
prestatutako
janariak

J. MUJIKA Harategia

Nafarroa Etorb. 31 ☎ 943 88 04 88
BEASAIN

Nagusia, 16 ☎ 943 88 18 32
Gipuzkoa, z/g ☎ 943 88 08 78
Etzea ☎ 943 16 06 02

ORDIZIA



IÑAKI KANPOS AUTOZERBITZUA

- ✗ Bertako haragia
- ✗ Odolki, txorizo
eta tripaki
bereziak



KALITATEKO
**EUSKAL
OKELA**

Zumalakarregi, 4 ☎ 943 88 28 27 **ORMAIZTEGI**

Manuel Barandiaran HARATEGIA



2000. urteko
odolki
txapeldun
Beasain eta
Ordizian

Kale Nagusia, 32 ☎ 943 88 18 91 **ORDIZIA**

Non zer

3: HAMABOSTALDIAN NABARMEN:

Odolki lehiaketa
Beasainen

7: AHOLKUA: Pello Barandiaran

8: KATE MOTZEAN: Joxe Munduate

10-11: Jexux Etxeberriari agur

12: San Martin jaiak Ataunen.

13: San Martin azoka Zegaman

18-28: KRONIKAK:

18: Beasain
19: Mutiloa
19: Zaldibia
20: Segura
21: Idiazabal
22: Gabiria
23: Ormaiztegi
24: Ordizia
25: Lazkao
26: Ataun
26: Zegama
29: Arama

30-31: AGENDA

32-33: DEBALDEKO IRAGARKIAK

34: FOTO ZAHARRA: Ataundarrak, 1982an.



*Iazko lehiaketa
Manuel
Barandiaranek
irabazi zuen. 2000ko
Odolkiaren
Erregearen korroa,
besteren bati emango
beharko dio, nola eta
berriz ere berak ez
duen irabazten.*

Azaroaren 10ean, Beasainen

XVII. Odolki lehiaketa

Azaroaren 10ean, eguerdiko 12etan hasita, odolki lehiaketa jokatu da Beasainen. Hain ospetsua den lehiaketak 17. edizioa izango du aurtengoa. Beasaingo Odolkiaren Kofradia da lehiaketaren antolatzailea.

Beasaingo odolkiaren erregea edo erregina aukeratu dute Beasaingo San Martin plazan. Odolkigileek hainbeste estimatzen duten izendapena, urtean zehar, salmentetan asko nabaritzen baitute Beasainen odolki txapelketa irabazitakoek. Beraz, Goierri, Tolosaldeko, Urola Garaiko eta oro har Gipuzkoako harakinek odolkirik onenak eramango dituzte Beasaina. Ohi bezala, epaimahai zorrotza izango dute.

50.000 pezeta, garaikurra eta txapela ere jasoko ditu irabazleak, errege eta erregina izendapenarekin batera.

Datorren urteko otsailaren 5ean, Odolkiaren Kofradiak ospatzen duen eguneko bazkarirako odolkiak prestatu beharko ditu irabazleak.

Bertako produktuen azoka

Odolki lehiaketa 12etan hasiko bada ere, bertako produktuen azoka 10etan hasiko da. Babarrunak, odolkiak, sagarrak, gaztainak, piperrak, Segurako taloak... denetik dastatu eta erosi ahal izango da, Loinazko San Martin plazan bertan.

Aldi berean, 10etan puntuan hasiko dira odolkiak egosten, San Martin plazan bertan, 12etan, epaimahaikideak odolkiak dastatzen hasi daitezten. Ordu eta erdiz egosiko dituzte odolkiak.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkarte
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxa: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre Maketazioa: Mikel Albisu Publizitatea: Argider Mujika Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Aimar Maiz, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Iñaki Ugalde, Aitziber Murua, Pello Barandiaran, Santi Etxeberria eta Juantxo Unanua.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale. SSN: 1132-0907 Lege gordailua: SS-926/89 Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**





Fruitu saltzailerik gabeko Ordiziako azoka

Urriaren 17an, Ordiziako azokaren ohiko kokalekua aldatu egin zen. Plaza Nagusitik Garagartza plazara aldatu zuten azoka, konponketa lanak direla eta. Urriaren 17an eta 24an, fruitu saltzaileak ordea, ez ziren bertan izan. Jarrerara honen arrazoiak azalduz, idatzi bat banatu zuten jendearen artean. Honela zioen bost puntuko idatziak: “*Udaletxea, horien erdia (7 postu) ikuspenik gabeko eta azoka berriko gunetik erabat urrun dagoen etxarte antzeko batean kokatuak izan daitezten nahi duelako; gainontzeko 7ak erdiguneko aparkalekuan kokatzen ditu, etxartekoak hauekiko erabateko desabantailan geratzen direlarik; Udaletxeari, kalteturik suertatu diren 7 postuak azoka erdigunera hurreratzean oinarritzen diren hainbat aukera proposatu dizkiogu (batzuk baserritar produktuak, gaztak, pastak, olibak, eta abar saltzeko ezarri den estalkiaren inguruan eta besteak ahal den lekuan, baina ez etxartekoan); Udaletxeak entzuten gaitu, ez dirudi gure kezkak ulertzen dituenik ordea, bere erabakia dela eta eratoritzen diren ondorio ekonomikoak ulertzen dituenik ematen ez duenez; sorrarazi ditugun eragozpen eta kalte-enganatik barkamena eskatuz, gure jarrera ulertuko duzula eta zure laguntza izatea espero dugu*”.

Ardoaren astea eta gazta txapelketa Ordizian

Arabako Errioxar ardoaren astea ospatuko dute azaroaren 19etik 25era Ordizian. Asteazken zehar, hitzaldiak eta dastatzeak izango dira. Asteburuan, berriaz, Arabako Errioxa ardoaren azoka izango da. Ardo ezberdinak dastatzeko aukera izango da bertan eta ardozaleen arteko lehiaketa ere. Azaroaren 10ean bertan, larunbatean, ‘Ordizia txapeldun’ gazta txapelketa jokatu da. Azken 10 urteetan Ordiziako iraileko gazta txapelketa irabazi duten arteko gazta lehiaketa izango da.

Azukrea posta azalean

Ertzaintzak diligentziak ireki ditu Ordiziako gazte baten kontra, herri horretako denda batera azukrea zuen gutun bat bidaltzeagatik. Gutuna postetxean geldiarazi zuten, barruan antraxa izan zezakeela susmatu zutelako. Eusko Jaurlaritzak halako kasuetarako onartutako protokoloa jarraituz, antraxik ez, eta azukrea besterik ez zela baieztatu zuten. Ertzaintzak berehala ikerketa hasi zuten eta horien ondorioz aurkitu zuten gutuna bidali zuena.

Mari Anjeles Iñurrategiren gazta, Euskal Herriko txapelduna

Lekunberrin jokatu zen urriaren 28an Euskal Herriko gazta txapelketa, Zerairen bizi den Mari Anjeles Iñurrategi idiazabalarrak irabazi zuen. Aurreko asteburuan, La Seu d’Urgellen jokatzen den Pirinioetako gazta txapelketa ere irabazi zuen.

Joxe Manuel Soroizek irabazi du Tolosako babarrun lehiaketa

Urriaren 28an, Tolosan jokatu zen babarrun lehiaketa, Legorretako Joxe Manuel Soroizek irabazi zuen. Epaimahaiaren ustez, berak prestatu zituen babarrunik goxoenak. Iaz Joxe Lorentxo anaiak irabazi zuen.

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**
Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54

Nafarroa Etorbidea, 25 - 2.

BEASAIN

**lues
rothers**
BEASAIN

Beasaingo Seroretxean bilduko da materiala

Beninera giza laguntza bidali nahi da

Eskolako, eraikuntzako, informatikako... materialak, sendagaiak, bizikletak, beso motzeko kamisetak... bilduko dira azaroaren 10era bitartean, Beasaingo Seroretxean, Afrikako Benin herrialdera edukiontzia bidaltzeko helburuarekin. Donostiako Elizbarrutiko Misioen ordezkariak koordinatuko du edukiontzia. Dirua ere jasotzen da. Kutxan kontu korronte bat badago Herriak Elkarlanean izenean, Zenbakia honakoa da: 001101276.2. Bildutako diruarekin materiala erosiko da.

Nigeria, Burkina Faso eta Togo herriek inguratzen dute Benin. 7 milioi biztanle ditu eta 112.622 km²ko azalera du. Bizitzaren esperantza 52 urtekoa da eta haurren heriotza tasari dagokionez, milatik 197 haur hiltzen dira. Analfabetismoa %43 baino handiagoa da. 2000 milioi dolaretako kanpo zorra du eta urteko perkapita, urtean, 50.000 pezetakoa da. 6 talde etniko nagusi daude. Hizkuntza nagusia, Fon, Yoruba, Mina eta Adjarekin batera, frantsesa da.

'Baserria bizirik'

Ideia berritzaileen sariketa antolatu du Goimenek

Azaroaren 15ean amaituko da antolatu duten Proiektu berritzaileen sariketan proiektuak aurkezteko epea. Landa garapenaren alde lan egiten du Goimen elkarteak (Goierriko Mendi Nekazaritza). Goierriko eskualdean garatu daitekeen proiektua aurkeztu behar da. Saria eskualdean gauzatu gabeko proiektuei emango zaie. Txosten labor bat aurkeztu behar da azaroaren 15a baino lehen. Gaia aukeratzearren arrazoiak, helburuak, justifikazioa, proiektuaren garapenaren memoria eta ahal dela aurrekontua zehaztu beharko dira bertan. Guztia, jakina, izen-abizen, helbide eta telefono zenbakiarekin lagunduta.

Gaiari dagokionez, jakina, landa garapenarekin lotutakoa izan behar da. Esate baterako: ohiko produkzio joeretan oinarritua, aldaketa eredugarriak edota produktuari balio erantsi handiago bat ematea lortuko luketen ekimenak; Goierriko eskualdean ohikoak diren produkzioetatik kanpo nekazaritza arloan burutu daitezkeen ekimenak; edota nekazaritza jardueretatik kanpo, beste jarduera osagarri, ingurugiro mailan, nekazal kultura arloan... burutu daitezkeen ekintzak.

2 sari banatuko dira: lehenengoa 150.000 pezetakoa eta bigarrena 75.000 pezetakoa. Gainera, Goimenetik inbertsiorako dirulaguntza eskaintzeko aukera izango da, baldin eta proiektua eskualdean gauzatzekotan bada.



Kilometroak-eko autoa Manuel Zabalentzat

04862. Zenbaki horixe zuen errifa erosi zuen Zaldibian bizi den Manuel Zabalak eta Mazda Premacy autoaren jabe egin da. Sari-banaketa urriaren 27an egin zen Donostian. Argazkian, Manuel Zabala eta bere seme Iñigo, Julio Molina Mazdako ordezkaria eta David Aldaz Kilometroak 2001eko ordezkaria. Kilometroak jaiaren antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie Mazdari, errifak erosi dituzten guztiei eta errifak saltzen han eta hemen ibili direnei.



Euskal Herriko Bertsolari txapelketa

Aitor Sarriegi ondoen

Martxan da dagoeneko Euskal Herriko Bertsolari txapelketa eta lehenengo kanporaketak jokatuta dituzte Goierriko

bertsolariek. Legazpin jokatutako saioan, Aitor Sarriegik 706 puntu eskuratu zituen; Iñaki Muruak 692 eta Joxe Munduatek 649,5. Adituen esanetan, Aitor Sarriegik azken laurdenetara pasatzeko aukera handiak ditu. Amurrioko saioan, azkenik, Ekaitz Goikoetxeak parte hartu zuen. Hirugarren izan zen, 687,5 puntu lortuta.



XENKIEGI
ETXE-AROKINTZA
Diseinuak neurritan

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak

BEASAIN



Zaldibiko lainoekin hizketan

Asteazkena huan, udako goiz bero eta nazkagarri horietakoa. Goizean goizetik eguna gaizki hasi huan, gaizki edo... Euskal Herrian hasi daitekeen horietakoa, bada-kik. Goizeko 9ak hituan eta dagoeneko herria txakurrez bete-beteta genian, gu kontu-ratu ez bagintuan ere gau osoan izango genizkian belarri atzean. Herria okupatuz, kartelak amorruz arrankatuz, etxe bat mihatuz eta hiru her-kide atxilotuz.

Badakik herri txikia izaki segituan hasi hituan zurrumuruak, intentzio txarrik gabe baina, inor konturatzen ez bauan ere izugarritzko mi-na eginaz. Orduak pasa aha-la, jabetu gintuan 80. hamar-kadatik hona egin den an-terki eta filmerik onenaren aurrean gintuala. Gobierno 'Vasco' huan beste behin ere produktore boteretsu ahal-guztiduna. Kotxe 'kamufლა-tuak', kaputxadun zaintzaile sutsuak, kamara-putre odol-tsuak, furgoiak, pistolak, po-rrak, furgoi gehiago, famoso egin zen Gofl urdin 'kamu-flatua'. Jo! hue hoan beneta-ko pelikula ta han geudean gu! Ze ostia pasatzen huan konturatu nahian.

Abuztua huan, badakik eta gutxinaka hasi gintuan jende multzoa biltzen, zahar-rak, helduak, gazteak eta haurrak, denak filmaren par-te bihurtu gintuan, nahi izan gabe baina demokratikoki, Balza zuzendari jaunaren

esanetan oso ongi zihoan fil-ma. Baina guk ez genekian filmaren lehen zatia huala bakarrik, ta a ze gaua!.

Hurrengo eguna osteguna, puff! A ze beroa! Gauean ber-riz izan genitian herrian eta beste etxe bat mihatuz ziaten; pelikula onak bezala gauez eta indarkeriaz beteta egin ziaten lana. Izugarritzko akto-reak hituan, beltzez jantzirik eta hortzetaraino armaturik Policia! Oihukatuz, inguruko mendiak hartuta; lasai dena kontrolpean. Baina nahi zie-na aurkitu ez zenez balkoiko presoan maindirea txikitu ziaten.

Goizez jarraituz, berriz herria okupatuta! Lehenengo etxeko mihaketak jarraituz atxilotuetako bat ekartzen diate. Tentsioak jarraitzen dik! Ordu batzuen buruan bazijoaztek, kamara-putreak, aktoreak, juezak eta ostia guztiak. Arratsalde mugitua, bakik holakotan makina bat lan izaten dek!

Ostirala, goizetik usain txarra zeok herrian, ummmm malo! Esan eta izan. Beste lokal bat mihatzen die. Gara-je huts bat, 'produktoreak' gidoiaren zati batzuk kalera-tzen dizkik, eta pelikula ak-ziozkoa ez ezik, fikziozkoa ere badela esan genezakek. Kriston gidioia dekela kontu-ratzen gaiztek. Baina hemen ez dek bukatzen arratsalde-z itzuli eta beste atxilotu bat ekarri zieran garaje huts hura ikuskatzera. Esan beharrik ez dago berriz, auto kamufლა-tuak, furgoiak, putreak, 're-

kortadak', gurpiletako goma erre usaina, porrak eta broma gutxi aktore profesional hauekin.

Telebistak nazka ematen zian, eta 'Diariok' zer esanik ez! Baina badakik oraindik ere, gure herri hontan aber-tzale sutsu gehiegi ikusten dizkiagu Diario besapean eta telebista buruan dizkiela.

Larunbata, inkomunikatu-rik 4. eguna, arraroa ez de-ken bezala herrian hainbat kartel eta pankarta falta di-tuk, badakik aktoreen ordu estrak! Entsaiaitu beharra ze-gok! Berri pozgarri bat jaso diau gaueko txikizioei buelta ematen ari gaiztekenen, gure herrikoak hituen hirutik bi etxera! Poza handia huen baina ez osoa. Eguerdian iri-tsi hituan, aureskua, loreak, muxuak eta negarra nagusitu huan.

Larunbat arratsalderako manifestaziorako preparati-boak aurrea zihoaztela, be-rriz herriko plaza okupatuta! 3 furgoi, auskalo zenbat ko-txe, kaputxadunak, juezak eta ostia guztiak, eta derre-pente! Atxilotuetako bat, bu-ruan toaila bat jarrita zera-matean, a ze eszena! Lagu-nak, herritarrak, denak oihu-ka, eta kaputxadun beltzak tinko, zai, aktore finak beza-la beraien ordua noiz iritsiko. Artzaiaren txakur finak beza-la, esandako tokian kieta! Egoten hituan noiz nagusiak xaxatuko, aurrean zizkien ar-diak bideratu ezean koxk egiteko.

Arratsaldeko zazpi terdie-tan atera zuten berriz erama-teko herri osoa kanpoaldean oihuka, garraxika; artzaina berriz arro! Indartsu papera beteaz, Oskar bat merezi zu-ten! Noski berarekin burutik behera emango geniean mo-mentu haietan.

Abiatzerakoan bultzaka-dak, ostikoak, mehatxuak, eta hor zihoazeen aktoreak gure herriko alaba bat espai-niar otso gidoilariari hortze-tara entregatzera, kupidarik gabe, furgoiaren barnean ba-bestuta, tiro keinua eginaz, behatz konkretu batez agur-tuaz, arro!

Madriidik bidaliriko gi-doia, ongi jakin dik Balza zuzendariak betetzen, pro-duktorea gustura zegok peli-kula jada oso ongi saldu de-kelako.

Besterik gabe gero arte! Egunen batean topo egingo diau. Zihur.

*Mikel Luloaga Aranburu
(eta hire koadrilako kideak)
Zaldibia*

X A X O

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

☎ 943 02 73 55 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

Udalak sustatutako etxebizitzaren salmenta

ALTZAGA
AZKEN ETXEBIZITZAK!

Guztira 180m² + lorategia

Informazioa:
Lanegunetan: 943 16 21 92
Larunbatetan: Altzagako Udaletxean (10:00-13:00)



**Pello
Barandiaran**
Gertu aholkularitza

Baserriaren babesa oinordekotza zuzenbidean

Hau dela eta 1999-ko Azaroaren 26-ko 3/1999 legea atera zen, "Baserriaren eta Famili Ondarearen Ordenazioari buruzko Legea"

Lege honen babesa, beraien bizitokia Gipuzkoan dutenek eta Gipuzkoan kokaturik dagoen baserri baten jabe direnek eska dezakete (Baserri kontzeptuaren barruan sartzen dira baserri-etxea, lur-sailak, tresnak, abereak...).

Lege honen punturik nabarmengarriena, baserria oso-osorik oinordeko bati uzteko ematen duen aukeran dago, bere balioa "legitima" edo ondasun guztien herenaren kalkulutik kanpo geratzen delarik. Era honetan, baserriarekin geratzen den seme-alabak ez luke inoiz legitimaren ordainketa beste oinordekoei egiteko baserria saldu beharrik izango.

Baserriaren jabeak, bera hil ondorenean baserriarekin nor geratuko den modu

ezberdinetan arautu dezake:

- Testamentu bidez, bera hil aurretik.
- Bera hil ondoren erabaki hori bere emazteak hartu dezala esanaz.
- "Oinordekotza itun" bitartez bera bizi den bitartean. Hau notario aurrean eta eskritura publikoan egingo litzateke.

Lege honek duen beste berezitasun bat, "testamentu amankomuna" egiteko eskaintzen duen aukera da, hots, senarrak eta emazteak bakoitzak testamentu bana egin ordez, biak baserria eta beste ondasunen geroa testamentu bakarrean erabakitzeko aukera.

Eskuartean darabilkigun lege hau, ez da derrigorrezko legea, beronen aplikagarritasuna, kasu bakoitzean baserriaren jabeak erabakiko du. Ezer esaten ez bada, zuzenbide zibil orokorra izango da aplikagarri, legitimak errespetatu behar direlarik kasu honetan.

Baserriaren jarraipenerako aurrerapauso garrantzitsu bat gerta liteke lege hau dudarik gabe eta baserriaren babes ekonomikoan ekarmen garrantzitsua.



Espainiar Kode Zibilean oinordekotza modu orokorrean arautzen da, toki bakoitzean egon daitezkeen desberdintasunak kontutan hartu gabe. Hau dela eta, Gipuzkoan baserria "etxe-koari" oso-osorik uztearen ohiturarekin jarraitzea zaila gertatzen zen.

Honen arrazoia, oinordekoek duten "legitima"-ren eskubidean datza, ondasun guztien heren bat seme-alaba nahiz ondorengoaren artean zati berdinetan banatu beharrean hain zuzen.

Bete behar hau dela eta, baserria jasotzen zuenak, eta hau ondasun bakarra nahiz ondasunen artean garrantzizkoena zen kasuetan, berau saldu beharrean gerta zitekeen, beste anai-arreba nahiz ondorengoei beren legitima zatia ordaintzeko.

Arau hau, geroztik eta gutxiago geratzen diren baserrien kontrako arau bat bilakatu zen.

Euskara txukunean

Zero eta huts

Biak dira zuzenak, nahiz eta gauza bera ez izan! Noiz erabili bata eta noiz bestea?

Zero: zenbaki-izena da. Telefono-zenbakiak esatean, adibidez, horixe erabili beharko dugu. **SOS Deiak: 012 (zero, bat, bi)**

Huts: ez da zenbaki-izena, zenbatzailea baizik! Kirolet emaitzetan erabil dezakegu: **Realak lau eta huts irabazi dio Bartzelonari.* / Realaren eta Bartzelonaren arteko partida hutsean amaitu zen.**

Temperatura egoki esateak ere ez dizkigu nolanahiko buruhausteak ematen! Aldian aldiko kasuari begiratu beharko diogu horrelakoetan: zenbaki-izena denean **zero** esan, eta zenbatzailea denean **huts**. Adibideak: **Atzo, sei gradu zero gainetik; gaur, aldiz, bi gradu zero azpitik. / Hozberoa hutsean dago: zero markatzen du termometroak.**

(*) Realzaleok, tamalez, aspaldi honetan ez gaude horrelako berriak entzuten ohituak... baina, tira, ez dezagun esperantzarik galdu!

Maizpide Euskaltegia

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnoak.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN

EGUZKI
INPRIMATEGIA

Nafarroa
Etorbidea, 9

943 88 94 82

BEASAIN

GABINETE PSIKOLOGIKOA
ARPE

Pedro Jose Landagutierrez

PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- ✖ Depresioak
- ✖ Harremanetarako arazoak
- ✖ Beldurrak
- ✖ Antsiak
- ✖ Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. BEASAIN

Nola entrenatzen zara txapelketarako?

Ez dut ezer berezirik egiten, kantatu eta irakurri.

Zein lan duzu gustukoen, bakarka, ofizioka, puntua emanda...

Ondo nagoenean denean moldatzen naiz poliki; gaizki nabilenean, ezertan ez.

Zein duzu bertsotarako lagunik gustukoena?

Gaia bideratzen eta erantzuten dakien laguna dut gustuko.

Eskuak poltsikoan edo atzean?

Nik atzean edukitzeko ohitura daukat.

Txapelketak beharrezkoak al dira?

Baietz uste dut.

Txapelketa nagusi honetan zein da zure helburua?

Helburua final erdietara heltzea zen baina ez da posible izan.

Nork jantziko du txapela?


Zaila da erantzutea. Finalean sartzen direnetatik edonork izango du aukera.

Goierritarrik izango al dugu finalean?

Uste dut aurtengoa ez dela goierritarron urtea.

Bertsotarako plazarik onena?

Plazarik egingo banu...



*Joxe Munduate
Bertsolaria*

Bertsorik onena mikrofono aurrean edo mikrofonorik gabe?

Mikrorik gabe lasaiago kantatzen dut.

Ligatzeko bertsoz ala hitz lauz?

Ligatuz gero berdin dio, baina horretan ere ez dut zorterik.

Bertsoa gai librean:

Kate motzean nago hau ez da berria galdera sakonari erantzun urria mingainari zaila da hartzen neurria onena izango da argazki berria.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

943 88 87 02

BEASAIN

GERTU
aholkularitza

TXEkin programarako
homologatutako erakundea

txekin Kale Nagusia, 2
BEASAIN
Telf: 943 16 21 92

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



Boni-etxe
igeltseritza orokorra

616 921 502

Oriako pasealekua, 12

BEASAIN

ATAUN SAN MARTIN JAIAK

*San Martinak iritsi zaizkigu eta
GOIERRITAR guztiok, aurtengo jaiak
gurekin ospatzera gonbidatu nahi
zaituztegu horretarako antolatu ditugun
ospakizunak elkarrekin gozatuz.*

**ONDO PASA
JAIETAN!**

AZAROAK 9, OSTIRALA

21:00 ROCK KONTZERTUA OARGIN:

- LEHER
- BARLEY JUICE

22:30 BERTSO JAIALDIA

Herri Antzokian:
Andoni EGAÑA
Joxe AGIRRE
Jexux M. IRAZU
Anjel Mari PEÑAGARIKANO
Jokin SOLOZABAL
Joxe MUNDUATE
eta herriko bertsolari gazteak:
Haitz AIERBE, Oier ZURUTUZA,
Iban URDANGARIN
Aitzol MUNDUATE

24:00 DRINDOTS taldearekin dantzaldia

AZAROAK 10, LARUNBATA

17:00 PAILAZOAK "POXPOLO eta MOKOLO" Auzoeta Udal
Kiroldagian

18:30 ANTZERKIA Herri Antzokian: "TRABENA-espekta-KULO" A
Hiru antzerki motx GOAZ taldearen eskutik

24:00 SAKATRIK taldearekin erromeria

AZAROAK 11, IGANDEA

18:00 JENTILEN ETORRERA

Ondoren MONDEJU JANA kalustran

ANTOLATZAILEA:

San Martingo Jai Batzordea
Ataungo Udalaren
babesean



Ataungo Jexux Etxeberria, txatar-biltzaile eta bildumagileari agur

Urriaren 20an hil zen Jexux Etxeberria txatar-biltzaile eta bildumazalea. Euskal Herriko, eta zenbait arlotan Europako, antigoaleko tresnen bildumarik onenetakoaren jabe zen. Ataungo 'Nondik' aldizkarian, 1983. urtean, elkarriketa sakona egin zioten ataundarrari eta berau berreskuratu dugu Jexux Etxeberriaren jarduna gogoratzeko.



- Nola sartu zinen mundu honetan?
- Akolito nintzela hasi nintzen, 6-7 urterekin. Garai hartan gure familiarteko batek diru mordoxka bat utzi zion San Martingo elizari. Apai-zak, diru asko zela eta, eliza berritzea pentsatu zuen. Horrela, dena berri zuten. Lurpean sepulturak zeuden, aintzina, eliz-azpi hori kanposantutzat erabiltzen baitzen nonbait. Lurpe horretatik lur eta hezur guztiak kanposantura eraman eta txiki guztiak eta lurra erre kara botatzen zituzten. Ni erre kaku urak hazi zain egoten nintzen, ur handiek lurra eraman zezaten; gero txikitutakoan aitzur txiki bat hartu eta bertara joaten nintzen. Handik txanponak eta errosario puska atera eta Don Juan Arini eramaten nizekion.

- Eta, bereziki, txatarrarekin lanean noiz hasi zinen?

- Ba, garai txarrak etorri ziren gerra aurretik eta lan-eza zegoen. Gerra pasa eta gero hasi nintzen. Gerra garaian asko sufritu nuen, espetxean egon nintzen.... Osasuna ikaragarri

galdu nuen. Tailer batean lanean hasi eta denbora librean bizikleta hartuta txatar bila joaten nintzen baserriz baserri eta etxez etxe. Egun batean bildutakoa biharamunean klasifikatzen nuen. Jeneralki sarrailek, antigoaleko iltzeak, antigoaleko armak... izaten ziren. Ni, ermentariaren semea alde batetik eta horretarako zaletasun handiaz bestetik, gozatzen ibiltzen nintzen gauza hauek apartatuz. Gainera orduan, jendearentzat, gauza guzti hauek txatarra ziren, antiguedade izena ez zen ezagutu ere egiten. Eta horrelaxe hasi nintzen. Berriz osasunaz gaizki ibili nintzen, ohean denboraldi luzeak egiten nituen eta sendagileak lanbidez aldatzea hobe nuela esan zidan. Lantokiko nagusiak ez zuen hori nahi izan eta neure gisa hasi nintzen. 45 urte nituen, bi ume txiki, osasunaz hondatuta eta denek esaten zidaten zer egin behar nuen tailerra utzita. Baina ordurako ezagutzen nuen nire antiguedade mundua eta tira, osasun ona banuen aurrera atera nintzela pentsatzen nuen, eta osasun txarra ba-

nuen ez honetan eta ez taile-rreran. Komeri handiak ibili nituen dirurik ez nuelako. Antiguedadeko gauzak gorde eta txatarra bakarrik saltzen nuen, ahal nuen bezala biziz. Gero atzerritarrek etortzen hasi ziren eta jendea harriturik geratzen zen. Ez zuten konprenitzen atzerritar horiek nola etor zitezkeen niregana, ni erotzat hartzen baininduten herrian. Kontu hau dela eta, familian ere nahiko disgustu izan nituen. Familiakoek lan hori uzteko esaten zidaten, bajatuta nengoela eta herrian erotzat hartzen nindutela alegatuz. Nik garbi azaldu nuen jendearen esanak ez zidala axola eta nire familia aurrera ateratzeko nik bakarrik nekiela zenbat sufrimendu behar izan nuen.

- Zu, txatar mundu honetan ez zara izan besteak bezalakoa, ezta? Negozioaz aparte beste berezitasun bat ematen diozu, ala?

- Erabat desberdina. Orduko txatarreroek ez zuten nik nuen zaletasun hori. Ingurumari honetan bakarra nintzen honetarako afizioa zuena. Gero atzerritarrekin gehiago ikasten nuen. Eta defenditu ere, hauekin defenditzen nintzen, on guztia neronek gorde eta txar guztia beraiei saltzen nielako. Txanpon hauekintxe ateratzen nuen bizia. Gainera, diru pixka bat egin nuenean, txatarrerri handiagotara joaten hasi nintzen, almagaz handiengana, Euskal Herriko hiriburuetara... eta handik interesatzen zitzaizkidan gauzak erosten nituen. Irakurtzeko ere zaletasun handia nuen eta liburuak (arte gotikoaz, erromanikoaz, berpizkundeaz...) erosten hasi nintzen. Mundu hau zabaltzen eta antikuariorei ere erosten hasi

nintzen.

- Lehen hori esatera gindoazen, hau da, garai hartan ikasketak handirik, edo behintzat, horretarako aukera gehiegirik ez zenuela izango.

- Estudioetan ere, Beasaingo kolegio batean ibili nintzen, oso bizkorra nintzen eta aurrenetakoa atera nintzen. Estudio handiak hartu nituen. Kolegiotik ateratzerakoan, aitari maisutzarako balio nuela esan zioten, baina ordurako gastu handi xamarrek zirenez fabrika handirako apuntatu ninduten. Juxtu orduan, orain bezalako krisia iritsi zen. Eta ahal bezala ibili nintzen.

- Ikasketei buruzko galdera zergatik egiten genizun: zure gauzak klasifikatzeko zeure gisako estudioez baliatu zinen jakiteagatik.

- Bai, bai. Gehiena neure gisa ikasi nuen. Gauza hauei segituan antz ematen nien onak ala txarrak ziren. Gero liburuez baliatuz, eta baita ere atzerritarrez, gero eta gehiago ikasi nuen. Gauza hauek erosteko garai ona zen baina diru ezak hondatzen ninduen gehien.

- Sailkapenen barruan, antiguedade edo antzinako gauza mote-kin nola moldatzen zinen?

- Ba, begi handia izan zuen atzerritarrek eskatzen zidatenaz baliatzen nintzelako, hau da, atzerritarrek erlojuak eskatzen bazizkidaten, ni, segituan erloju biltzen hasten nintzen, hauen moda zetoirela nabarmen ageri zelako; eta erlojuekin bezala armekin eta abar, eta abar. Baina okerrera zen diru asko behar zela; hori gordetzeko ere dirua behar zen, diru hori geldi egoten zen eta bizi izateko dirua be-

har zen. Horrekin izaten nituen problemak. Gero beste problema bat suertatzen hasi zitzaidan: gauza hauek gordezteko lekua behar nuela. Lekuak nola edo hala aurkitu eta joan den denbora honetan inbentarioa prestatzen ibili gara.

- Hitz egin iezaiguzu zure antzinako gurez.

- Esan bezala, inbentarioa orain dela gutxi prestatu dugu eta 112 bilduma atera dira.

- Hauetatik zeintzuk bereziko zenituzke?

- Hemen denetik dago. Orain, jendeak inportantzi gehiena autoen bildumari ematen dio, honetan 14 edo 15 izango ditut.

- Eta baten bat bereiztekoan? Hor entzun izan dugu Parisko lehen taxia zuk daukazula.

- Baita, baita. Egia da. Nik oso kotxe inportanteak dauzkat. Alfonso XIII erregearentzat egindakoa bat, Euskal Herrian egindako bakarra beste bat: 'Donostia' izenekoa eta eskuz egindakoa, motorra eta dena. Gero, kotxeko farolen bilduma dut, gurgile-na... bizikleten bilduma, irrati-ena, erlojuena; Euskal Herriko kalderetan izan litekeen ederrenetakoa: larehundik gora, argazki makinena, armena, kimikako laborategiko tresnena, eztaizuz egindako gauzena, plantxena... Klaro, lehen esan dizuedan bezala, nik txar guztia saldu eta on guztia gorde egiten nuen. Gauza hauek biltzen Euskal Herrian bakarrik ibili naiz,



hemendik irten gabe.

- Guzti hauetatik besteak baino maiteago duzunen bat?

- Ez. Afizioa denetarako izan dut eta. Euskal Herrian den kolekziorik onenetakoa dut. Gero euskalduna ez da izan gauza hauetarako afizionatua eta dena bota egiten zuen, eta biltzen zuena erotzat hartu, kultura gutxikoak izan baikara. Bueno, eta hala izan ez balitz nik ez nituzkeen ditudan gauza guzti hauek bilduko.

- Eta orain esango balizute gauza guzti hauek subastatu beharra daukazula, zenbatean baloratuko zenuke dena?

- Ez, ez dut subastatzeko asmorik, baina inondik inora ere ez ordea...

- Baina zuk imajina ezazu bizi izateko subasta horren beharrean zaudela.

- Ez, ez. Nik lehen ere momentu larri asko pasatu ditut nire bizitzan eta beste modu batzuetara konpondu ditut. Ez, ez, hauek ez dauzkat ezerगतik ere saltzeko. Pen-

tsa, lehen ere izan ditut eros-tunak, Kanadatik etorritakoak eta abar. Europan eztaizuzko kolekziorik onena dudala esan eta erosi egin nahi zidaten. Nik esan nien ez neukala saltzeko eta gutxiago Euskal Herritik ateratzeko. Nire ideia, gaur edo bihar, gauza hauek Euskal Herrian jartzea da. Honekin esan nahi dizuet, gauza hauek horrela gordezteko izugarritzko sentimendua izan dudala, galtzera zihoazela ikusten bainuen. Nik, garai hartan, bista handia izan nuen. Txatarrero eta kolekzionista izan nintzen beste txatarreroak ez bezala. Nik ikusten nuen gauza guzti hauek, biltzen ez baziren, galtzera zihoazela, hauek ez baitira artoa eta garia bezala, datorren urtean ere irtengo direnak. Orain jende askori sartu zaio kolekzionatzeko egarria eta niregana etortzen dira piezak eskatzera; nik esaten diet orain berandu dela, ia dena imitazioa delako.

- Lehen esan diguzu gauza hauek Euskal Herrian gordetzeko edo

asmoa duzula. Asmo hori nola konkretatzen da etorkizunari begira?

- Hemen, asko hasi dira museo bat jartzeko asmotan. Baina esanagatik Euskal Herriari edo Euskal Herriko gauzei asko nahi zaiela, negozioziorik ikusten ez bada, inork ez du nahi inbertitu. Gure kulturarentzat ona litzateke, baina badakite museoak ez duela negozioziorik, hor nonbait, zulo batean sartuta egon beharko duela. Katalanak bezala bagina, gauza hauek asko maitatzen dituztenak... baina euskaldunak, jan eta edan bai, horretan aurrenetakoa, baina kulturen oso motzak gaude.

- Eta ez al dago museo bat zabaltzeko erabaki konkreturik Euskal Gobernutik edo...

- Ez dakit. Denak badabilta nahaspilan baina, erabaki konkreturik ez dago. Nik ahal dudana egin dut, nik erosi ditut, konpondu, gorde, nire txanponak horretan sartu ditut. Uste dut nahikoa egin dudala gauza horiek gordez nire bizia sakrifikatuz; dena salduta ederki bizi nintekeen, baina gorde egin ditut. Nik ezin dezaket besterik egin.

- Zure azken nahia, hortaz, gauza guzti hauek leku batean biltzea izango litzateke, ezta?

- Bai, horixe litzateke: ni hiltzerako leku batean bildu eta jendeak ikustea gizon baten lana, "ero" baten lana zein izan den.

*Testua eta argazkiak:
Nondik aldizkaria*

Arkupe
tapizegia
Tapizeak - Ohe estalkiak - Endredoiak
Mantak - Malndireak - Storeak
Toallak - Gortinak eta osagalak
J. M. Barandiaran Plaza
943 88 00 84 ORDIZIA

Tel. eta Faxa: 943 886 558 Poltsikoko telefonoa: 616 698 288
TOLDOS OLANAK AGUSTINI
Jose Agustin Jauregi
Zubi-Erreka Industrialdea, 42 LAZKAO
e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net

LEIAR
KRISTALDEGIA
ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea 943 88 60 70
BEASAIN

San Martin jaietako egitaraua

Azaroak 9, ostirala, koadrilen eguna:

12:00etan: Juntadizoa plazan eta ondoren poteoa trikitilari-ekin.

14:00etan: Koadrilen arteko bazkaria Bitor Jatetxean. (Txartelak bertan erosi ahal izango dira azaroak 7 baino lehen).

17:00etan: Asto larterketa (Gurdian herrian zehar ibiltzeko aukera izango da).

21:00etan: Rock kontzertua Oargin: Leher eta Barley Juice taldeak.

22:30ean: Bertso jaialdia herri antzokian: Joxe Agirre, Andoni Egaña, Angel Mari Peñagarikano, Jexux Mari Irazu, Jokin Soroazabal, Joxe Munduate, eta herriko bertsolari gazteak: Aitzol Munduate, Iban Urdangarin, Haitz



Aierbe, Oier Zurutuza. Gai jartzaile: Jon Aizpurua.

24:00etan: Drindots taldearekin dantzaldia goizalderarte.

Azaroak 10, larunbata, umeen eguna

12:00etan: Toka Txapelketa Plaza Berrin.

13:00etan: Kalejira trikitixa eta buruhaundiekin.

14:00etan: Umeen bazkaria Eskolan. Jolas Parkea egongo da.

16:00etan: Mus Txapelketa Oargin.

17:00etan: Poxpolo eta Mokolo pailazoak Auzoeta Kiroldegian:

19:00etan: Antzerkia Herri Antzokian: Trabena-espekta-Kuloa. Hiru Antzerki Motx. Goaz taldearen eskutik.

Mozorro gaua

21:00etan: Herri afaria Bitor Jatetxean. (Txartelak bertan erosi ahal izango dira Azaroak 8 baino lehen).

24:00etan: Sakatrik taldearekin erromeria.

Goizaldera: Baratzuri zopa Oargin.

Azaroak 11, igandea, San Martin eguna

09:30ean: Dultzaineroekin kalejira.

11:30ean: Meza Nagusia.

12:30ean: Otsoak Dantza Taldearen saioa.

13:00etan: Bertsolariak plazan eta salda beroa Atsedan Tokin.

14:00etan: Jubilatuen bazkaria Bitor Jatetxean.

18:00etan: Jentilen etorrera.

20:00etan: Mondeju jana kaulustran.

Ondoren: Trikitixa.

Azaroak 18, igandea

18:00etan: Organo Kontzertua. XXXII. Bach Musikaldia.

Oharra: Festa zapiak taberneta egongo dira salgai.

Agurtzane
Heapaindegia
Altzanipe, 2
☎ 943 18 02 93
ATAUN (San Martin)

TROSKAETA
TABERNA
☎ 943 18 00 37
ATAUN (San Martin)

ERAUSKIN
HARATEGIA - URDAITEGIA
KALITATEKO
EUSKAL OKELA
Odokiak, mondeju beltzak eta txorizoak
San Martin jai zoriontsuak denoi!
☎ 943 18 00 27 ATAUN

ERBIETA JATETXEA
Festa zoriontsuak denoi!
☎ 943 18 00 19 ATAUN (S. Martin)

KOLDO KEREJETA S.L.

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZAK
Tel/faxa: 943 88 11 66
Mugikorra: 629 44 94 60
Helbarrena, 27 ATAUN



ZUBIKOETA GASOLINDEGIA
● Gasolina, gasoila A eta C
● Berogailuentzat gasoil banatzailea
● Autoaren garbiketa moeta guztiak
☎ 943 18 04 86 - faxa: 943 18 04 87
Zubikoeta industrialdea **ATAUN**

INAZIO GARMENDIA
Harategia
☎ 943 18 00 32
Dorronsoro-enea
ATAUN

Azaroaren 17an, San Martin azoka Zegaman



Egun nagusia azaroaren 17an izango bada ere, aurretik, hitzaldi, dastatze eta afari bat baino gehiago izango da giroa berotzeko. Jarraian duzue egitaraua:

Azaroak 8, osteguna:

19:30ean: Ehizari buruzko sukaldaritza ikastaroa, Bergarako Lasa jatetxeko Koldo Lasa sukaldariaren eskutik.

Azaroak 12, astelehena:

19:30ean: Udaletxean, 'Agenda 21'aren inguruko hitzaldia. Hizlariak: Leire Ereño (Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumeko Zuzendaria) eta Xabier Zabala (Gipuzkoako Foru Aldundiko Teknikaria).

Azaroak 13, asteartea:

19:30ean: Perretxikoei buruzko sukaldaritza ikastaroa, Zumarragako 'Kabia' jatetxeko Juanma Hurtado sukaldariaren eskutik.

Azaroak 14, asteazkena:

19:30ean: Latxa ardia eta Idiazabal gaztari buruzko hitzaldia. Ondoren gazta dastatzea.

Azaroak 15, osteguna:

19:30ean: Ardo dastatzea eta afaria. Hizlaria: Homenaje de Bodegas Marco Real bodegako etnologoa.

Azaroak 16, ostirala:

22:30ean: Pilotalekuan, Profesionalen Lau t'erdiko pilota partiduak: Etxaniz - Goñi II/Otaegi arteko partidako irabazlearen aurka. Ondoren, eskuz binakako partidua: Eugi-Rai - Capellan-Lasa III.aren aurka.

Azaroak 18, igandea:

12:00etan: Pilota partiduak pilotalekuan, infantil, eta senior mailan: X. DV-ETB pilota torneoak.

17:00etan: Takolo, Pirritx eta Porrotx emankizuna, Udalak eta Guraso Elkarrekin antolatutik. Ondoren, pilotalekuan txokolate beroa.

San Martin azoka, larunbatean

9:00etatik 12:30era,
Pilotalekutik Urgainberri arteko eremuan:

✓ Herriko abereen lehiaketa: behiak, behorrak, ardiak, bildotsak...

✓ Abereen erakusketa: oreinak, euskal oiloak...

9:00etatik 12:30era,
Eliza eta Udaleko arkupeetan eta pilotalekuan:

✓ Landare, fruitu eta barazkien erakusketa.

✓ Artisau eta eskulangintza erakusketa: kaikugintza, hargintza, silagintza, artilezko galtzerdiak, tailagintza, ontzigintza, talogintza, eskuaragintza, ehungintza, e.a.

✓ Gazta antzinako erara eta ogia egitearen prozesua ikusgai.

✓ Ehungintzako Enplegu Tailerreko instalakuntza eta ekipamenduen erakusketa.

10:00etan: Bailarako txistularien kalejira.

11:00etatik 13:00etara: Pilotalekuan, Urbia eta Aizkorriko artzainen arteko 3. Gazta lehiaketa.

11:00etatik 14:00etara: Kultur etxean, pintura erakusketa.

13:00etan: Pilotalekuan, abere lehiaketaren sari banaketa.



13:30ean: Gazta lehiaketaren sari banaketa. Ondoren lehiaketara aurkeztutako gaztaren dastaketa bertaratuentzat herriko elkarte gastronomikoen laguntzarekin.

14:30ean: Maiora plaza inguruan, txistularien saioa.

17:00etatik 19:00etara: Pintura erakusketa.

17:30ean: Herriko kaleetan zehar, kalejira, buruhandi eta erraldoiak, txistulariek alaiturik.

18:30ean: Pilotalekuan, herriarren arteko eskuz binakako San Martinetako 3. txapelketa. Ondoren herriarren arteko aizkora apustua.

Oharrak: eguraldiak laguntzen ez bada, ekintza gehienak pilotalekuan ospatuko dira. Eguerdian, Tartalo elkarrekin txakolin dastaketa egingo du. Iluntzean, berriaz, Gazte Herexaren eskutik, sagardo dastatzea izango da.

URBIZU

☎ 943 80 19 99

ZEGAMA

ROGS. 11.141462 - 14.01.462/SS

OILOTEGIA



Anne-Kathrin Grager eta Heike Hoesterey alemaniarrek Zegaman Kaikuak egiten dituzte eta San Martin azokan egingo dute aurkezpena

Zegamako Arizti zahar baserrian bizi dira Anne-Kathrin eta Heike. Erabat hondatuta zegoen baserria erosi eta pixkanaka berritzen joan dira. Bi neska alemaniarrek hori egitea guztiz ohikoa ez bada, are gutxiago havek ogibidetzat kaikugintza eta kutxagintza izatea. Zegamako San Martin azokan egingo dute, herritarren aurrean, beraien lanaren aurkezpena.

Anne, Ekialdeko Alemaniakoa da, Berlin ondokoa. Heike, Mendebaleko Alemaniakoa, Koloniatik 30 kilometrorra dagoen herri batekoa.

Heike duela 10 bat urte iritsi zen Euskal Herrira, Alemanian Iruñeko lagun bat zuen eta Euskal Herrira itzu-



Anne-Kathrin Grager eta Heike Hoesterey Arizti zaharra baserri berrituan.

litakoan berarekin etortzea erabaki zuen, 3 hilabeterako. Gustatu egin zitzaion eta bertan gelditu zen.

Bi urte geroago Anne Nafarroara etorri zen eta bertan ezagutu zuen Heike. "Alemanian gauzak ez zeuden hain ondo eta urtebeteen Nafarroa aldean gelditzea erabaki nuen eta gaur arte".

Nafarroan Doneztebe eta Sunbilla bizi izan ziren. Bertan ikasi zuten euskara eta bide batez, kaikuak egiten. Sunbilla gizon heldu batek gazteei irakatsi nahi zien kaikuak egiten eta duela 7 urte ikastera animatu ziren. Hone-larik aurkitu zuen Annek bizitzeko modua berria.

Kaikuak egiteaz gain egurra lantzen dute bi alemaniarrek.

Kutxak, neurri guztietakoak baina batez ere txikiak, erlojuak eta hainbat zurezko lan egiten dituzte. Denak ere modu klasikoan, betiko irudi eta formekin.

Zegaman gustuko lekua

Euskal Herrian finkatzeko erabakia hartu zutenean Nafarroan hasi ziren baserri bat erosteko asmotan, "baina dena oso garesti zegoen, guretzat ezinezko salneurriak. Zegaman Arizti zahar baserria topatu genuen, erosi eta berritzen hasi ginen duela urte pare bat", diote.

Herritarren aurrean beraien lanaren aurkezpena egingo dute San Martin jailetan. "Nahiz eta urte eta erdiz Zegaman bizi, baserria konpontzen nahikoa lan izan dugu eta ez gara gehiegi atera. Kaiku lana ere utzita eduki dugu, baserria konpontzeari lehentasuna eman baitiogu. Orain garaia iritsi da guk

Vendi®
EDURNE
JANARIDENDA
Egun ona opa dizuegu!
☎ 943 80 15 66 ZEGAMA

AITZKORPE
TABERNA
Egun ona para dezaguelo opa dizuegu!
S. Martin, 15 ☎ 943 80 11 62
ZEGAMA


AITZKORPE
TABERNA
☎ 943 80 03 10
ZEGAMA

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

egiten dugun lana ezagutera emateko", dio Heikek. Azokan kaikuak erakutsiko dituzte eta kaikuak nola egiten dituzten ere bai.

Gustura daude biak ere Zegaman. Annek zura lantzen jarraitu nahi du Arizti zahar baserrian. Heike idazlea ere bada, 2 liburu argitaratuak ditu alemanez, eta zurgintzan jarraituko badu ere ahal duen denbora gehien eman nahi dio idazteari.

"Goizeko lehenengo orduetan, leihotik Aizkorri ikus-tea oso gustuko dugu", diote. Gainera, inguru eder honetan, etxean bertan dute lantokia. Kaikuak egiten eta idazten...

Kaikuak saldu beharra

Aurrerantzean, etxea berritzeko lan nagusienak egin ondoren, kaikuak egin eta zurgintza lanei denbora gehiago eskaini ahal izango die. Azoketara joaten ere hasiko dira, abenduan Tolosako azokara joatekoak dira.

Enkarguz lanak egiten dituzte, baina oraindik ere azoketara joan beharra dute beraien lana ezagutarazteko. Leku finkoetan, adibidez, Guggenheim inguruko denda batean, edo Zeraingo Man-

dioan ere izan dituzte beraien kaikuak salgai, eta bertakoez gain atzerritarrek ere erosten omen dituzte kaikuak.

Annek bitxikeria bat ere ba du kontatzeko: "Azoka batean kaikua mikro uhin labean sartu ote zitekeen galdetu zidaten. Nik behin behintzat baietz erantzun nion. Handik aurrera auskalo".

Euskaraz txukun

Biek ere txukun egiten dute euskara. Hala ere, euskara oso zaila omen da. "Gramatika ikasten sekula ez dugu bukatuko", uste du Heikek. "Ikasteko praktikatzea bezalakorik ez dago. Gu beti saiatzen gara euskaraz hitz egiten, baina, batzutan zail samar egiten zaigu Zegamako euskara ulertzea".

"Euskal Herrian bizi gara, beraz euskara jakin behar dugu. Badago jende bat, beraien lanean oso tradizionala dena baina euskararik ez dakiena. Baina niretzat dena lotuta dago, kultura eta euskara... Jendeak ez badu euskaraz hitz egiten, kultura galtzen da eta noizbait Euskal Herria galduko da. Edozein lekutan gertatzen da hori", dio Annek.



Kaikugintza

Kaikua hiztegiaren arabera ardi esnea biltzeko erabiltzen den zurezko ontzia, euskarri bakarrekkoa da. Anne eta Heikek urkizkoak egiten dituzte kaikuak. Handiagoak eta txikiagoak, neurri guztietakoak... "Pagoarekin ere egin daiteke, baina guretzat politena urkia da, txuriena da eta. Gainera, zaporerik ez duen egurra izan behar da, esnari egurraren zaporerik ez emateko", diote. Enbor pusketa bat hartu, kaikuaren forma eman eta erreminta bidez husten joaten dira. Erremitek eskuz egindakoak dira, forja batean.

Nafarroan urki egurra aurkitzea zuen lanik zailena, debekatu baitago zuhaitzak botatzea. Zegaman berriz, zorteko dira bi neskak, mendizain batek lortzen dizkie urkiak, "pistaren bat irekitzeko edo, urkiren bat bota behar badute guri jakinarazten digu eta horrela lortzen dugu egurra". Euskal Herri osoan 5 bat kaikugile bakarrik daudela diote, "guztiak Baztan Malerreka inguruan. Gu kanpotarrak izanik, zailagoa da guretzat. Baina agian, Goierriin beste inor ez dagoenez, hemen errazagoa izango zaigu".

TXANTON

Tabernak

egun ona
pasa dezazuela
opa dizue

Tel.: 943 80 11 45

ZEGAMA

BENITO



Harategia
Urdaitegia

© 943 80 02 05

S. Barbara, 8 ZEGAMA

MANOLO

Edaritegia



Pintxoetan aukera haundia!

© 943 80 12 36

ZEGAMA

ZEGAMAKO KONTSUMO KOOPERATIBA-k



egun ona pasa
dezazuela opa dizue?



S. Martin, z/g

943 80 11 37

ZEGAMA

Goierriko eta Urruñako Ziburuko ikastolak bateginik

Kepa Junkera, azaroaren 24an Ordiziako Majori kiroldegian

Badira 5 urte, Goierriko ikastolak (Ordiziako Jakintza, Lazkaoko San Benito eta Beasaingo Andramendi), Iparraldeko Urruñako eta Ziburuko ikastolen alde dirua biltzeko jaialdia antolatzen hasi zirela. Aurtan, Kepa Junkera bizkaitar musikaria gonbidatu dute Ordiziara, azaroaren 24an, gaueko 10etan. Hurrengo egunean, Urruñan, Ruper Ordorika izango da. Bi egunetan, Jojo eta Ramuntxo Iparraldeko musikariak, Lazkaoko Ikastolako trikitilariak eta Urruñako eta Jakintzako abesbatzak ere izango dira.

Goierri eta Urruñako ikastolen arteko harremana orain dela 5 urte hasitako ibilbidea da. Arrazoiak honakoa izan zen: "Iparraldeko ikastolak egoera zailean zeuden orain bost urte eta orain ere horrela daude, ondorioz, gure laguntza eta babesa es-



Egitaraua

Azaroaren 24, larunbata, gaueko 10etan, Ordiziako Majori Kiroldegian: Lazkaoko ikastolako trikitilariak, Urruñako haurrak eta Jakintza ikastolako koralak, Jojo eta Ramuntxo, eta Kepa Junkera.

Azaroaren 25, igandea, arratsaldeko 4,30etan, Urruñako Iturribidea Kiroldegian: Lazkaoko ikastolako trikitilariak, Urruñako eta Jakintzako koralak, Jojo eta Ramuntxo, eta Ruper Ordorika

Autobusa zerbitzua izango da nahi duenarentzat, Ordiziatik Urruñara joateko, doan.

Kontzertuetako txartelak, 1.500 pezetan salduko dira. Aurrez, merkexego, 1.250 pezetan, ohiko lekuetan.

kaintzen hasi ginen", diote ikastoletako ordezkariak. "Ikastolek bere sorrera bertatik izan dituzte ezaugarri berezi batzuk: herritar-tasuna, elkarlaguntza, ekimenerako gaitasuna

eta abar. Guztia euskara eta euskal kultura sustatzeko. Ikusi besterik ez dago azkeneko 30 urte hauetan zenbat urrats eman diren ikastolaren izenean eta izanean", gaineratu dute.

Urruñako ikastola

1995. urtean sortu zen Urruñako ikastola, bertako parrokiak utzitako 40 m²ko gela batean. 14 ikaslekin hasi zen. 1997. urtean 26 ikasle badira bertan eta elizatik prefabrikatu batzuetara pasatzen dira. 1999. urtean ikastola berria eraikitzen da. Euskal Herri osotik jasotzen dute laguntza "Harriz harri" kanpaina arrakastatsuen bidez. 2000. urtean 35 ikasle badira Urruñako ikastolan eta bigarren irakaslea dute lanerako. 2001. urtean 42 ikasle dira bertan. 3 irakasle eta 3 laguntzaile dituzte.

Ziburuko Piarres Larzabal kolegioa

1998/99 ikasturtean Seaskaren babesean sortu zen. 4 gela eta 75 ikasle zituen. 2000/2001 ikasturtean 180 ikasle dira bertan. 2003/2004 ikasturterako 250 ikasle izango direla aurreikusten da. Ziburuko ikastolak arazo handiak izan ditu aurtengo irailean, izan ere, frantziar administrazioak erabiltzen dituen gelak utzi behar zituela adierazi baitzuen. Momentuz ez da eskakizuna bete eta urte betez Ziburuko gelak erabil ahal izango dituzte.

GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- * Aholkularitza laborala eta fiskala
- * Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58
Goierri, 12 ORDIZIA

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

Euskararen normalizazioa helburu

Ordiziako 80tik gora gizarte eragilek bat egin dute Bai Euskarari akordioarekin



Barrena Kultur etxean egin zen sinadura ekitaldia. Elkarte edo erakunde bakoitzak banan-banan sinatu zuen Bai Euskarari akordioa.

Urriaren 18an sinatu zuten Bai Euskarari lankidetzak hitzarmena Ordiziako 85 bat gizarte eragilek. Ordizian, euskararen normalizazioa helburu hartuta, euskararen erabilpena areagotzeko konpromisoa hartu dute guztiek, Bai Euskarari esan diote. Lorea Deba eta Maria Nazabal teknikariak gustura daude ordiziarrek egiten dieten harrerarekin. Maiatzera bitartean, hiru urratsetan, euskararen diagnosia, helburu estrategikoak eta ildo estrategikoak zehaztuko dira. Kontseiluak herrietara hedatu nahi du Bai Euskarari akordioa eta esperientzia aitzindariak jarri ditu martxan, tartean, Ordizian.

Urriaren 18an Barrenan Hitzarmena sinatu zutenak baino gehiago izan daitezke Bai Euskarari akordioarekin bat egingo duten Ordiziako

gizarte eragileak, oraindik batzuk erantzuna ematekoak baitira. Hala ere, teknikariak gustura daude orain arte lortutako emaitzarekin, espero baino gehiagok sinatu baitute.

Hemendik aurrera, lanean hasi eta datorren urteko maiatzerako, beste helburu bat beteta egongo da. Hiru lan nagusi izango dituzte epe horretan: lehenengo, diagnosia egingo da sektoreka; ondoren, helburu estrategikoen txostena egingo da, eta azkenik, ildo estrategikoa eta ekintzen txostena zehaztuko da. Hemendik aurrera, talde edo erakundeek, bakoitzaren ahalmenen eta gogoaren arabera, bere konpromisoa hartuko dute, bere lanean euskararen erabilera areagotzeko neurriak hartzeko.

Ondorengo koadroan Bai Euskarari akordioarekin bat egin dute Ordiziako gizarte eragileak daude, bost talde-tan sailkatuak.

Sinatzaileak

Prozesura bildu diren gizarte eragileak bost lantaldeetan banatu dira.

Formazioa eta hezkuntza

Ordiziako Musika Eskola; Nick's ingeles akademia; Interlaw hizkuntza eskola; Clover hizkuntzak; Orbea autoeskola; Solozabal Ordizia Autoeskola; Wyss Akademia; Helduen Heziketa Iraunkorra; Goierri Lanbide Eskola; Jakintza Ikastola; Erdizia (Jakintzako) Guraso Elkarte; Oiangueren Guraso Elkarte; Oiangueren Instituto; Urdanetako guraso elkarte; Urdaneta ikastetxe publikoa; Ordiziako Guraso Elkarte.

Zerbitzuak

Eroski; Kutxa; Euskadiko Kutxa; Jesus Maria Aldaz abokatua; Amalur Cuesta abokatua; Imanol Otegi abokatua; Pedro Galarza abokatua; Maite Murgiondo abokatua; Zugaztibi Aholkularitza; Aurki Selección y Formación; IKM enpresa zerbitzuak; Ocio Deporte S. Coop.; Pedro Armendariz kontratista; Aukera marketing zerbitzuak; Eskisabel y Zubillaga; Biok Zerbitzuak; Gestoria Rey; Dominguez Asesoria; Zurich aseguruak; Lagun Aro Aseguruak; Eroski Bidaia; Larrañaga Multi Opticas.

Osasuna

Ignacio Perez de Mendiguren; Ordizia Osasun Zentroa; Oreka Dietetika eta Medikuntza Naturala; Akiles Fisioterapia Zentrua; Zaindu Fisioterapia Zentrua; Estibalitz Insausti Fisioterapia Zentrua; Alda Hartz Klinika; Arrizubieta Hartz Klinika; Garai Hartz Klinika; Eva M^a Azkarate.

Kirola

Ordiziako Arku Tiraketa Taldea; OKE Triatloia; Oiangueren Pilota Eskola; OKE Futbola; OKE igeriketa; OKE saskibaloia; Ordiziako Mendizaleak; Ordiziako Rugby Elkarte; Pauso Gaizto; Txapagain pilota elkarte; Txindoki Atletismo Taldea.

Kultura, mundu asoziatiboa eta gizarte mugimenduak

Komite Internazionalistak; Amnistiaren Aldeko batzordea; Elkarri; Segi; Kimetz Emakumeen Elkarte; ONCE; Ordiziara Plataforma; Senideak; Ordiziako Gazte asanblada; Jakintza Dantza Taldea; Laguntasuna Errondaila; Oroitz Abesbatza; Urrup Antzerki Taldea; Argi Berri elkarte; Azari elkarte; Irriki elkarte; Jai Alai pilota elkarte; Larrun Arri elkarte; Peña Taurina El Albero.

Astigarreta auzo elkarte

Beasaingo auzoa da gaur egun Astigarreta, baina 1929ra arte, herri izan zen. 40 baserri, 80 bat familia biziko ziren. Gaur egun, 6-8 baserri-tan biziko da jendea. Dena den, auzotarrek, auzoari bizi-tasuna eman eta elkartzeko lekua sortu dute. Astigarretako auzo elkarte (Astauzel) inauguratu zuten iazko San Martin jaietan. 46 bazkide ditu. Pedro Mari Alustiza da el-karteko lehendakaria.

1997an eliza konpontzeko auzotarrak elkartu egin ziren eta handik sortu zen elkarte edo txoko bat egiteko ideia.

Astigarretako eskola zen le-kuan elkarte bat egitea pen-tsatu zuten, elkartzeko leku goxo bat bihurtuz eta auzoari bizia emanez. Bertako bazki-de izateko baldintza bakarra, Astigarretakoa izatea edo As-tigarretarren ondorengoa izate-a, edo bertan bizitzea da. Jendeak gustura hartu du eki-mena eta kontu zaharrak as-tintzen momentu goxoak pa-satzen dituzte astigarretarrek.

Auzoa hustu

Gaur egun Astigarretan oso jende gutxi bizi bada ere, ga-rai batean herri polita omen



zen. Bi taberna, bi errota, errementaria, jostuna... zeu-den herrian. Baina industria-lizazioaren ondorioz etorri zen galera Astigarretarentzat. *"Fabrika Handira joateko urrutiegi zegoen eta batez ere gazte jendea herritik joan egin zen. Okerrena pasatu da. Orain jendea itzultzen ari da baserrietara, baserriak*

konponduz", dio Pedro Mari Alustizak.

San Martin eguna

12:00etan, Meza Nagusia izango da. Xabier Zeberio eta Joxe Agirre bertsolariak, Laja eta Landakanda trikitilariak eta Azurmendi eta Arrospide aizkolariak izango dira eguna osatuko dutenak.

Udazken kulturaleko ekitaldiak igandera arte

● **Odolkiaren festa azaroaren 10ean.** XVI. Odolki lehiaketa ospatuko da egun honetan. Goierri, Tolosalde eta Urola Garaiko harakin guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Ohitura moduan, irabazleak, otsailaren 5ean, Loinazko San Martin egunean egiten den Kofradiaren urteroko bazkarirako odolkiak prestatu beharko ditu. Odolkiak lehiaketara aurkezteaz gain, herritarrek odolkiak dastatzeko aukera ere izango dute, antolatzaileek odolki pintxoak eta edaria saltzen jarriko baitituzte. Eguerdiko 12etan emango zaio hasiera Loinazko San Martin plazan.

● **Bertako produktuen peria.** Bertako produktuen peria egingo da egun berean Loinazko San Martin plazan. Bertako produktuekin egingo den azoka berezi honetan, Euskal Herriko hainbat produktu erosi ahal izango dira, goizeko 10etatik aurrera egongo diren postu ezberdinetan.

● **Dantza eta musika jaialdia.** Lugoko 'A Buxaina' musika eta dantza taldea eta 'Cova Nuada' pandereteira taldeen desfilea ikusteko aukera izango da **azaroaren 10ean** 12:30ean. Arratsaldeko 6etan berriz, Aurtzaka dantza-taldekoek, Lugokoekin batera dantza eta musika jaialdia eskainiko dute Loinazko San Martin Plazan.

● **Pintura tailerra.** Txilibutxof taldekoek VII. Pintura-tailerra antolatuko dute gaztetxoentzat. **Azaroaren 11n 12etan** izango da Joan Iturralde Plazan.

● **Beasaingo argazki zaharren erakusketa.** XIX. mendearen bukaeratik gaur egun arte Beasainen emandako gertaerak erakusten ditu argazki erakusketa honek. (Ikus 31. orria).

Euskara ikasketak egin dituztenei dirulaguntzak

2000ko irailetik 2001eko abuztura bitartean, edozein mailatako Euskalduntze-Alfabetatzeko Euskara-ikasketak Euskaltegiren bitartean (Udal Euskaltegietan salbu) egin dituzten 16 urtez goitiko ikasle beasaindar guztiek, diru-laguntza eskaerak aurkeztu ahal izango dituzte Udaletxeko Harrera-bulegoan azaroaren 30era bitartean, goizeko 9etatik 13:00etara. Ikastaro horiek Irailaren edo Udal Euskaltegiaren laguntzarik izan badute edota Administrazioak antolatutako ikastaroak izan badira, ez dute diru-laguntza hau jasotzerik izango.

Laguntzak, ondorengoak izango dira: %50a langabetu txartela ekartzen dutenentzat; eta %33,33a gainerako guztientzat.

Eskatzaileak, klase-orduen %80etara joan izana frogatu beharko du ibili den Euskaltegiko agiriaren bidez eta Beasainen erroldatuta egon. Agiri hauek aurkeztu behar dira: matrikula-ordainagiriaren fotokopia; euskaltegiko agiria, klase-orduak, asistentzi orduak eta ikasketa-maila adieraziz; NAREN fotokopia; langabetu txartelaren fotokopia, egoera horretan daudenei; eta kontu korrante zenbakia.

Informatikako euskarazko programa-erabiltzaileei laguntzak

Ordenagailuak eta informatika-programak erosteko kanpainak aurrera jarraitzen du urtea amaitu arte. Beasaingo Udalak, Euskara-batzordearen bitartez, 7.000 pezetako laguntza emango die euskarazko Softwarea aukeratzen dutenei. Saltzaileek, Windows Millennium ateratzen denean haren euskarazko bertsioa instalatzeko konpromisoa hartzen dute. Horretarako, Beasainen erroldatuta egon behar da (agiria azaldu erostean).

Beasainen hornikuntza hau egingo duten saltzaileak Goisystem, Chip's eta Montte dira.

Nekane Altuna

Hitzaldiak kultur astean

Azaroaren 12tik 16ra bitartean izango da aurtengo aste kulturala eta hitzaldi hauek osatzen dute egitaraua:

● **Azaroaren 12an**, asteartean, Ane Miren Ugalde medikua 'Elikadura orekatua izaten ikasi' gaiaren inguruan arituko da, 19:00etan.

● **Azaroaren 13an**, asteazke-

na, landareen gaia izango du hizpide Jakoba Errekondok, 18:00etan.

● **Azkenik, azaroaren 14an**, ostegunean, euroaz hitz egingo da. Txanpon berriak eguneroko bizimoduan sortuko dituen aldaketak. 19:00etan.

Hitzaldi guztiak Kultur etxean izango dira.

Eskulan ikastaroa

Azaroaren 5ean aurtengo eskulan ikastaroa hasteko asmoa dago. Arratsaldeko 2,30etan izango da elkartzeko ordua. Izena eman nahi izanez gero, Udaletxera hurbildu besterik ez dago.

Ardi jatea

Urtero egin ohi den bezala, azaroaren 9an izango da herriko Ostatuan, aurtengo ardi jatea, gaueko 9etan.

Asteari behar bezalako amaiera emateko, berriz, gaztaina jatea izango da Ostatuan, **azaroaren 16an**. Herri-

tar guztiak animatu besterik ez, ekitaldi hauetan parte har dezaten.

Iñaki Ugalde

Nikaraguara nazioarteko begirale modura

Azaroaren hasieran hauteskundeak izan behar dira Nikaraguan. Hori dela eta, Zaldibiako Udaleko bi ordezkari, Oroitz Etxabe eta Maddalen Hernandez zinegotziak, Nikaraguara abiatu ziren pasa beri den urriaren 27an beste udalerrri batzuetako zenbait ordezkariarekin batera. Euskal Fondoa erakundearen bidez joan dira udal ordezkariok Ertamerikara, eta bertan egingo diren hauteskundeetan begirale modura aritzeaz gain, Zaldibiako Udalak diruz laguntzen duen Rama herrira ere joango dira,

hango jendea bisitatu eta bizi duten egoeraren berri jakitera. Momentuz haxe da dakiguna. Bueltatzen direnean izango dugu berri gehiago.

Diapositiba emanaldia

Euskal Herrian bada jende abenturazale eta kuriosorik, eta honen adibide argia da Hondarribiko familia batek egindakoa. Izan ere, Santi Gonzalez eta bere emazteak, beraien bi semeekin batera, munduari itzulua eman diote 17 urtez belaontzian ibili eta gero. Honen erakusgarri izango da, hilaren 22an, oste-

guna, Kultur Etxean eskainiko duten diapositiba emanaldia. 'Munduari itzulua 17 urtetan belaontzian eta familian' izena jarri dioten emanaldia hau arratsaldeko 7,30etan izango da.

Bertsolaritza eta pandero jole ikastaroak

Aurreko alean eman genizuen aukeran dauden hainbat ikastaroren berri, eta gaurkoan, beste bi dakartzagu gurea. Bertsolaritza eta pandero jole ikastaroak antolatzeke asmoa du Kultura Batzordeak, eta horretarako, adin guz-

tietako herritarrei dei egiten die bertan izena eman eta ikastaroa egiteko. Momentuz azaroaren 15 arte dago izena emateko aukera zabalik, Kultur Etxean edo 943.16.03.38 telefonora deituta.

Briganthya

Uemako Kultur Elejiraren barruan, azaroaren 23an, gaueko 10,30etan, antzokian, Beasaingo Briganthya folk musika taldearen kontzertua izango da.

*Iñaki Gurrutxaga
Saroï Jauregi*

45 kirol eskolarrean

Ondo pasatzea, ikastea eta partehartzea helburu izanik, urriaren 20an hasi ziren eskolaz kanpoko kirol jardunaldiak. Xabier Intxausti kirol koordinatzaile eta teknikariaren ardurapean. 8tik 12 urte bitarteko 25 neska eta 20 mutiko ari dira zapatu-jaietan 11 kirol ezberdinetan (pilota, herri kirolak, atletismoa, areto futbola, 7ko futbola, saskibaloia, igeriketa, tenisa, mahai tenisa, txirrindularitza eta mendia). Hasiera faseak eskualdeko eskolen artean eta ondorengoak herrialdekoen artean jokatu dira. Gabonak ingururako herri eskolak aterako dituen txandalak estreinatuko dituzte. Asteburu honetan, zapatuan, 2 saskibaloitako partidua izango dituzte etxean.

Jubilatuaren tabernarako lan eskaintza

Tina Da Silvak, Manuel Terrak eta euren seme Felipe eta Oskarrek ia 12 urteren ondo-

54 neska-mutiko dantza ikastaroetan

Laiotz Herri Eskolaz eskolaz kanpo antolatu ohi dituen euskal dantza ikastaroetan sekula baino haur gehiagok eman dute izena. Herriko eskolan dabilten 12 urte artekoak, pasa den urriaren 19an hasi ziren. Hauek, 41 dira eta lau taldetan banatuta aritzen dira. Aurten, ordea, aurrez ikastaroetan ibili eta herriko eskola utzi duten 12tik 14 urte bitartekoek ikastaroetan jarraitzeko aukera izango dute, udalaren laguntzaz. Azken hauek 13 dira eta aurrekoak bezala ostiral arratsaldetan ekiten diete dantzei beheko eskolan. Ikastaroek



ekainera arte iraungo dute. Gaztetxoekin Ane Rodriguez dantza irakaslea eta

gainerakoekin Zezilia Herrador ari dira.

ren, utzi egingo dute 'Atsedeen' jubilatuen elkarteko taberna. Urtarriletik aurrera, tabernaz eta elkartez arduratuko den jendea behar da. Tabernan, bazkariak eta afariak emateko aukera. Ez da alokairurik kobratuko. Dagoeneko, zenbait lagunek interesa azaldua dute. Informazio gehiago 943801998 telefonon.

Herriar gehiago futboleak

Futboleak, aurreko alean aipatutako 13 herriar eta herriarren seme baino gehiago badira. Jubeniletan Iker Aldasoro eta Iban Hernando ere badabilten eta infantiletan Eneko Montes ere bai.

Asteburuan etxean: Zapatuan bi partidua. **Kadeteak:** Aizkorri-Euskalduna (11:30). **Errejonialak:** Segura-Tolosalde (17:00).

Joseba Telleria



Pello Arrieta, ehiztari nahiz arrantzale

Pello Mari Arrieta, segurar soraluzeratua, herrian ehiztari bezala ezagunagoa bada ere, arrantzan ez da atzerago aritzen. Pasa den abuztuan, argazkian ikus daitekeen 3 kilo eta erdiko lupina arrantzatu zuen Ondarroan. Egun berean harrapatutako beste 25 kilo muxarrekin, Segurako Zopajale Elkartean lagun arteko afaria antolatu zuen Pellok.



Iritsi zaik San Martina

Aurreko alean txutatzaile ageri zitzaigun. Segurako futbol zelaietan jokatuak norgehiagoka hartan 7 gol sartu zituen eta 8 ekidin. Zapatu honetan, azaroak 10, badu beste apustu bat. Hau, Segurako Udaletxean izango da, arratsaldeko 6,30etan. Aitor! Aitor! Habilondo! Habilondo! Iritsi zaik hiri ere San Martina!

Hire koadrilak



Etxegarate udaberrirako

Etxegarateko bide berria otsailerako bukatu gabe egongo dela jakinarazi du Gipuzkoako Diputazioak. Antton Jaime Errepide diputatuaren esanetan, lanak egite-rakoan sortu diren arazoez, epea atzeratu beharra ekarri die. Oraindik, bukaera data otsailean jarrita duten arren, lanak ekainera arte luzatuko direla uste dute Diputazioko arduradunek.

Honenbestez, lanen buka-

era atzeratzen den bigarren aldia da. Berez, errepide berriak maiatzetik zabalik beharko luke. Lanak, ordea, atzerapenarekin hasi ziren, eta Diputazioak, hasierako proiektuan aldaketa ugari egin ditu.

Antton Jaime, urriaren 19an izan zen Idiazabalen. Etxegarate gaina zeharkatuko duen tunela zultzeko lanak nola bukatzen zituzten ikusten aritu zen. Tunelak, 212

Pilotalekurako langilea

Igarondo pilotalekurako arduradun baten bila ari da Udala. Instalazioak zaindu eta tabernaz arduratu nahi duenak, azaroaren 8a baino lehen eman beharko du izena. Horretarako, 18 urte beteta izatea, egun guztian lanerako prest egotea eta euskara jakitea eskatzen du Udalak. Izena ematerakoan, zerbitzua zein talderekin emango den zehaztu behar da.

metro ditu eta 400 milioiko inbertsioa egin dute. Errepide berriak, 180 metroko beste tunel bat izango du.

Egunero, 12.000 ibilgailu ibiltzen dira Etxegaraten barrera, horietatik, erdia, kamioiak dira. Lanak bukatuta koan, 15.000 ibilgailu ibiliko direla uste du Diputazioak.

Errolda berria

Aste honetan hasi da Udala, 2001. urteko biztanle eta etxebizitza errolda edo zentsua egiten. Datozen asteetan, etxean, Udalak bidalitako oharra jasoko dute herritarrek. Errolda berri ahal izateko, zein agiri eta datu eraman behar diren argitzen du oharra, eta udaletxera datu horiek zein egun eta ordutan eraman behar diren zehazten da.

Lan hori betetzeko, langile bat kontratatu du Udalak eta berak egingo du datuen bilketak. Zentsatuta egoteak, besteak beste botoa emateko auke-

ra, ikastetxeetarako sarbidea eta beste hainbat zerbitzueta-rako eskubidea ematen du.

Eguneko Zentroa

Gipuzkoako Foru Aldundia, Eguneko zentroarentzako laguntza handitzekotan dabil. Orain, sei plazarentzako ematen du dirulaguntza, eta hamabira zabalitzea aztertzen ari da.

Inauguratu eta urtebetera, eguneko zentroan 8 lagun daude, hiru herritarrek, eta gainerakoak inguruko herritakoak. Udala eskari gehiago aztertzen ari da.

Aspaldiko elurteak

Garai batean, Idiazabalen izaten ziren elurteei buruz hitz egingo du Joxe Kruz Aranburuk, azaroaren 6an, astearte, Jubilatuen Elkartearen emango duen hitzaldian. Arratsaldeko 7etan hasiko da eta herritar guztiek dute bertara joateko aukera.

Xabier Urteaga

ETXEBIZITZA BERRIAK SEGURAN

HERRI ERDIAN

- ✕ 2 logela, egongela, sukaldea, jangela, bainugela 17.500.000 pezetatik hasita.
- ✕ Duplexa: 4 logela, egongela, sukaldea-jangela, 2 bainugela 23.000.000 pezetatik hasita.
- ✕ Garaje itxiak aparte 2.100.000 pezetatik hasita.



Azken etxebizitzak!

ERAGIN S.L. inmobiliaria Tel.: 943 474699 - 609 40 30 81
Marina Kalea, 10 - 1.F DONOSTIA



Altzariak neurritan
Mota guztietako aroztegi lanak
PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefonoa: 639 631 640
Antzizar-Katea, 5 BEASAIN



VIII. Osinalde bola txapelketa

Joxe Antonio Ugarteburu irabazlea

Pasa den hileko lehen larunbatean eman zitzaion bola denboraldiari itxiera herrian, udal bolatokian jokatu zen Osinalde txapelketarekin. Berrogeita hamaika bolarik jardun zuten nor baino nor, probakoan eta sei tiraldi kontagarrietan zeinek birla gehiago botako. Joxe Antonio Ugarteburu ezkiotarra atera zen azkenean garaile, Alejandro Usabiagarekin 36 puntutara berdindu eta buruz burukoa irabazita. Hauen atzetik Imanol Agirre segurarra geratu zen, puntu bat gutxiagorekin.

Herrikoen artean Nikolas Igartzabal izan zen jaun eta jabe, puntutan inork ez baitzuen honen 34koa berdintzerik lortu. Migel Mujika eta Joxe Mari Mujika geratu ziren hurrenak. Gazte mailan, berriz, Andoni Berasategik

lortu zuen "Etxahun saria" izena daraman garaikurra.

Jubilatuek ospatu zuten euren eguna

Udalak herriko erretiratuei zuzenduta antolatzen duen eguna lehengo urriaren 21ean izan zen. Betiko legez, meza nagusitik irteeran dantzak ikusi eta baxoerdi batzuk hartu ondoren lagun arteko bazkaria egin zuten Ostaturun. Trikitilari gazteak eta bertsolariak izan zituzten bazkal ondorena alaitzen laguntzeko, eta festa giroan bertan zirentan aurretik saria jaso gabe zeuden zaharrenei, Merkategiko Modestari eta Aranburuko Antoniori, oroigarri bana eman zitzaion.

Aimar Maiz



Aurten ez da errezil sagar lehiaketarik izango

Orain bost urtetik hona hutsik egin gabe antolatu den errezil sagar lehiaketa, erakusketa eta azoka aurtengoan ezin izango dela egin jakinarazi dute antolatzaileek. Sagarrak egin du kale oraingoan, oso urte kaxkarra izan baita arlo horretan. Herriko baserritarrek ez daukate lehiaketa itxuraz prestatzeko lain, nonbait. Antolakuntzako Gabino Muruak aipatu digunez eguraldiak eraman du aurtengo uzta galtzera, "sagarrondoak loretan oso ondo zetozen, baina apiril bukaeran egin zuen tenperatura aldaketa bortitzak denak galarazi zituen; astebe-teren tartean izotza zuri egitetik 30 graduko berora pasa zen giroa".

Kantitate aldetik oso gutxi atera izanak eta ondorioz kalitatea ere nola-halakoa edukitzeak baserritarrak nahiz arduradunak desanimatu egin ditu, beste urtetako mailari eustea ezinezkoa izango dela ikusita. "Kanpotik sagarra ekartzen hasi gabe, eta bertakoekin erdipurdiko erakusketa egiterik nahi ez dugunez, bertan behera uztera derrigortuta gaude. Ea datorren urtea emankorragoa izaten den eta egun hori antolatze-ko aukera dugun", argitu digu Gabinok.



1.700 gramoko tomatea

Sagarrik ez akaso, baina tomateak bai irten direla, ugari eta ederrak. Eta tartean-tartean baratzean honelako alea bilatuz gero zer esanik ez; kilo eta 700 gramoko pisua zuen Eguzkitzan bildutako honek. Argazkian, tomatearen ondoan, hogeiduroko txanpona azaltzen da erreferentzizat.

Ander Deunaren jaiak azaroaren 19tik abenduaren 2ra

Ander Deunaren jaiak azaroaren 19tik abenduaren 2ra bitartean ospatuko dira. Oraindik erabateko egitaraurik ez badugu ere, aurrerapen gisara jarraiko ekintzen aipamena egin dezakegu.

Herriko jai nagusien atarikoak jubilatuen elkarteak antolatutako hitzaldiak eta mendi astea izango dira. Azken hau azaroaren 19tik 25era bitartean ospatuko da. Egunez, mendia gaitzat izango duten ikus-entzunezkoak izango dira. Larunbatean eskalada saioa eta igandean goizetik Ormaiztegi inguruko mendi irteera eta arratsaldean gaztaina jatea izango dira.

Azaroaren 24 eta 25ean



Ander Deunaren jaien barneko lehen asteburuko ekintzak izango dira. Larunbatean egun elegantea ospatuko da. Igandean, berriz, VIII. Artisanen erakusketa herriko enparantzan arratsaldean hurrei zuzendutako ekitaldiak izango dira.

Azaroak 29, osteguna, emango zaie herriko jaietako hasiera ofiziala buruhandi eta suziriaren jaurtiketarekin. Azaroaren 30ean, Ander Deuna zaindariaren eguna izango dugu. Txarangak alaitutako giro egunean zehar, Meza Nagusia, herri kirolak, Udalak eskaintutako hamaiketa-

koa, bertsolariak eta haurrentzat hainbat ekitaldi izango dira.

Abenduaren 1ean, moztaroen eguna, lagun taldeen eguna izango da. Goizean zehar haurren danborradak alaitutako giroa, egunean zehar moztaroen giroturiko giroa eta arratsaldean sari banaketa izango dira, guztia txarangak alaitutako giroan.

Abenduaren 2an, jubilatuen eguna izango da. Ormaiztegiko XV. Odolki lehiaketa, IV. odolki osagaien azoka eta lehiaketa eta odolki osagaitzat duten plateren II. sukaldaritza lehiaketa jokatu-ko dira enparantzan. Arratsaldean herri kirol jaialdia.

Arrakasta handia jatorrizko euskal animali espezieen II. erakusketak

Urriaren 21ean ospatu zen -- Arrastoak 2001-- berezko animali espezieen bigarren erakusketak arrakasta izugarria izan zuen. Eguraldi bikainak lagundutako giro apartaz burutu zen gure herrira jendetza handia erakarri zuen erakusketa. Goizean zehar pottoken gainean ibili, betizua dastatu, sokamuturraz gozatu, animaliak gertutik ikusi eta beste hainbat ekintza egiteko aukera izan zen.

Denetarik ikusteko aukera izan zen

Jatorrizko euskal animali espezie bakoitza berari dagokion elkarteak aurkeztu eta agerian jarri zuen, askotan ikuslegoarengan harridura eta jakinmina ere sortu zuen. Oso bestelako euskal animali

espezieak ikusteko aukera izan zen. Betizu, terreña eta pirenaikak; Euskal Herriko mendiko zaldia, Jaca Navarra eta burgete zaldia; pottokak, euskal txerria, euskal oiloa, euskal erlea, bertako ibai karramarroa, euskal artzain txakur iletsua, Gorbeia euskal txakurra, billano txakurra, sasiardiak, ardi latxa mutur gorriak, ardi latxa mutur beltzak, karrantzako ardi mutur gorriak, karrantzako ardi mutur beltzak eta abar.

Elkarteen lana

Egunerako bereziki prestatu ziren guneetan elkarteek bereizien abereek ikusleengana hurbil arazi nahi izan zituzten, ordu desberdinetan espezie bakoitzaren ezaugarriak eta bitxikeriak jakitera emanaz. Elkarteek burutu zituzten aurkezpenen bitartez ikusleengan behin eta berriz harridura eta jakin nahia sortu zuten. Espezie desberdinak ikusleengana hurbiltzea lortu zuten.

Betizu dastatzea

Bezperan gauetz hasi eta igande eguerdian arte bertan errentzen betizuen haragiak arrakasta izugarria izan zuen. Ehunka pintxo saldu ziren, sagardo eta Errioxako ardoaz lagundutako. Dastatzera eman zen betizua eta terreña elkarrekoek jarri zuten. Haragia zatitu eta pintxoetarako prestatzen herriko hiru harategietako harakinak aritu ziren: Deba harategitik Benito eta Jexux Mari Deba, Iñaki Autoserbitzutik Jexux Mari Campos eta Murua harategitik Iñaki eta Ander Murua. Lerro hauetatik jaso bezate guztiek gure eskerrik beroena eskaini zuten laguntzagatik. Elkarlanean burutua

Aurtengo erakusketak izan duen arrakasta neurri handi batean elkarlanean burutu izan den lanaren ondorioa izan dela esan dezakegu. Euskal animali espezieen elkarteetako kideak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazari-

tza saileko ordezkariak eta Ormaiztegiko herritarrek bat eginik aritu izanaren emaitza izan da. Aipatu emaitza igandean guztion begi-bistakoa izan zen, herri txiki bat izanagatik gure mugak gainditu zituen erakusketa baten aurrean aurki ginelarik. Datorren urteari begira eta lortutako arrakasta kontuan izanik, antolatzaileak oraindik ere erakargarriagoa izango den 'Arrastoak 2002' erakusketaren prestaketa lanei ekitaldi prest aurkitzen dira.

Lerro hauetatik jaso ezazue Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Departamenduak, Goimen Elkarteak, Irizar enpresak, Deba harategiak, Iñaki Autoserbitzuak, Murua harategiak eta era batera edo bestera aurtengo erakusketa antolatzen lagundu izan duen bai kanpotar eta baita herritarrek ere batzorde antolatzailearen izenean eskerrik beroena.

Aitziber Murua

Etxebizita eta biztanle errolda berritzea

Ordiziak zenbat biztanle dituen, etxebizitza kopurua eta berauen egoera, etxetan bizi direnen datuak eta herritarren asetze maila zenbaterainokoa den jakin asmoz, hamar urtean behin egin beharreko tramitea betetzea dagokigu oraingoan. Herritar orok egin beharrekoa da errolda berritze hau eta honetarako nahikoa da azaroaren 24a baino lehen honetarako Domingo Unanue Plazan jarri duten bulegora joatea (INEM zegonekora).

Lau galdetegi izango dira bete beharrekoak eta etxean bertan bizi direnen nortasun agiriaren kopia eramatea

nahikoa izango du etxeko batek. Bulegoa 9etatik ordu batera goizez eta 3etatik 6etara arratsalde egongo da irekita. Larunbatez, berriz, goizeko 9etatik ordu batera bitartean.

Arabako Errioxa ardoaren astea

Dataekin arazoren bat edo beste egon bada ere, azkenean, Arabar Errioxako ardoaren astea azaroaren 19tik 25era ospatuko da. Dastatzek eta hitzaldiak izango dira aste osoan eta asteburuan, berriz, azoka. Ordiziako Txapeldun gazta txapelketa 24an izango da.

Ikasi Makusi kultur eskaintzak

Hitzaldia eta kale antzerkia izango dira entzun eta ikusgai azaroaren 13an bata eta 15ean bestea. Euskararen Aholku Batzordeak udazkenerako antolatutako "Ikusi Makusi" kultur eskaintzako bi erakusgai besterik ez dira hauek, aurrerantzean izango baitira gehiago.

Esan bezala, **azaroaren 13an**, asteartea, Koldo Zuazoren hitzaldia izango da Barrena Kultur Etxean arratsaldeko 7etan. Hitzaldiak 'Ordiziako euskaratik euskararen herrira' izango du leloa eta nolabait eleaniztasunak gaur egungo haurrengan dituen abantailez arituko da. Era berean, **azaroaren 15ean**, osteguna, haurrek izango dute kale antzerkiaz goatzeko aukera. Arratsaldeko 5etatik aurrera 'Goloka Park' ikuskizuna izango da Garagartza Plazan jarrita dagoen karpapean haur guztien gozamenerako.



Ikastaroetan partu hartutako hainbat ikasle igerilekuan.

Sustapen kanpaina arrakastatsua

OKE Urpekoak taldekoek herriko ikastetxeetako ikasleei luzatutako sustapen kanpainak arrakasta itzela izan du. Hainbat larunbatetan ordu eta erdiko saioak eskaini eta gatzetxoaren erantzuna izugarri ona. Guztira 107 ikasle pasa dira aipatu saioetatik eta hauek guztietatik 24k OKE Urpekoak taldean jarraitzeko nahia agertu dute.

Uretan aletak nola erabili, tuboarekin arnasa nola hartu eta azken batean beste kirol mota hau ezagutaraztea zuen helburu aipatu kanpainak. Gauzak honela, OKE Urpekoak taldeko entrenatzaileek, orain gutxi jasotakoak praktikan jarri asmoz, 1990 urtetik aurrera jaiotako guztiei deia luzatu die iluntzeko 8,30etatik aurrera igerilekura ager daitezen. Gustatuz gero, eskola barruko kirol jardunetan parte hartzeko aukera izango dute denek eta aurrerago iritsiko dira aleta bakarrarekin lehiatzeko garaiak.

Aitor Calvillo

AMEB



Sagardotegia

Erretegi bezala irekita

- * Eguneroko menuak
- * Asteburuko menu bereziak
- * Karta zerbitzua
- * Plater konbinatuak

- * Sagardotegiko menua
- SAGARDOA TXOTNETIK
- * Ardikia dastatzeko aukera (enkarguz): mondejuak, mondeju zopak...

Zubierreka,9 © 943 16 25 23 LAZKAO



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO GARAJEA

Senpere Industrialdea
 ☎ 943 882442 - 943 888901
 Faxa: 943 888901
LAZKAO

Zentsuaren eguneratzea

Lazkaoko udalak herriko biztanle eta etxebizitzaren datuak eguneratu behar ditu azaroan, eta horretarako zentsua egingo da berriro. Lan horretan ari dira Arantxa Peña, Sergio Solis eta Maria Angeles Arratibel.

Zentsua eguneratzeko, Lazkaoko biztanleek udal-txetrik pasa beharko dute bertan bere datuak betetzeko. Datuak udaletxeko lehenengo solairuan egongo den bulegoan beteko dira asteleheneretik ostiralera goizeko 9,30etatik 13:00etara eta 15:00etatik 18:00ak bitartean. Hala ere, eta guztia errazago egiteko herria hiru zonaldetan banatu dute, zonalde bakoitzari data ezberdinak emanez. Elozegi kaleko 2, 4, 10, 14 eta 18 zenbakietan eta Zelata, Gurutze, Hirigoien, Jose Lasa, Uhaitz, eta Zubizkitza kaleetan bizi diren guztiak urriaren 29tik azaroak 9 bitartean joan beharko dute udaletxera beren datuak betetzera.

Euskadiko enparantza, Mikelar, San Jose, San Prudentzio, Lazkao barreiatua, Zubierreka, eta Santa Magdalena auzoetakoek, Elozegi kaleko 1,3, 5, 7, 11, eta 13 zenbakietako bizilagunekin batera, azaroaren 12tik azaroaren 16ra izango dute paperak betetzeko aukera.

Amaitzeko, azaroaren 19tik azaroaren 23ra bitarteko zentsuko datuak betetzeko azken txanda izango da. Egun hauetan Elozegi kaleko 15etik 25era eta 20tik 58 zenbakira bitartean bizi direnek pasa beharko dute udal-txetrik zentsuko paperak bete-

tzera. Hauez gain, egun hauetan, azaroaren 19tik 23ra hain zuzen, Antzaldeko 11 eta 16 zenbaki bitarteko bizilagunak, Hiribarren, San Inazio, Areso, Lazkao Barreiatuko 18tik 29ra, eta Iturgaitzaga kaleetakoak, Senpere eta Lazkomendi auzoetakoak eta Ibabe industrialdean bizi direnak bete beharko dituzte zentsuko paperak.

Zentsua betetzerakoan familiakide guztien N.A.N. zenbakiak, familia liburua, jaiotze data, ikasketa, lanbidea eta etxebizitzaren eraikitze data ere eraman beharko dira udaletxera.

Bertso afaria Maizpiden

Datorren azaroaren 13rako bertso afaria antolatu dute Maizpide euskaltegian. Aferria Maizpide bertako jangelan izango da eta bertan Iñaki Murua eta Alaitz Sarasola bertolariak izango dira bertsoak bota eta giroa alaitzen. Bertso afari hau arratseko zortziak inguruan hasiko da, eta antolatzaileek Maizpide euskaltegiko ikasleek gain, herriko jendea ere animatzeko eskatu dute.

2004ko Euskal Herriko itzuliaren amaiera

3 urte barru Euskal Herriko itzuliaren amaiera Lazkaon antolatzeko lehen urratsak ematen hasi dira. Zehaztasun handirik ez badago ere Udala eta Kirol Elkarteak lanean ari dira.

Oihana Sarasola



Txorizugarri lehiaketa

Urriaren 26an banatu ziren aurtengo txorizugarri lehiaketako sariak. Bost sari banatu ziren. Jarraian dituzue irabazleen izenak eta saritutako esaldiak. Maore Garcia, esaldia: "Herriak garbiak, pozik gure aurpegiak". Bost axola taldea: Amaia, Susana, Ignazio, Rosa eta Txispi, esaldia: "Ez galdu burua ta zaindu natura". Naiara Garmendia, "Naturarik gabe, gu bagoaz hemendik". Pailazoak taldea: Maialen Arrue Alonso eta lagunak. Hauen txorimaloaren esaldia saritu nahi du epaimahaiak: "Ai txorimalo! Biharko zer utziko dugun... auskalo!!!" Txoritzar taldea: Gorka, Aitor, Lander eta Jon, esaldia: "Ehiztaria mendian eta, ea txoririk ez erdian!!!". Sari berezia, karraka. Ikastolatik erakusketara etorri eta boto gehien bildu dituen txorimaloarentzat izan da, Irati Sorraluze eta beste lau bakerorentzat. Esaldia: "Natura beharrezkoa da guretzat. Ez dezagun kaltetu"

Malabarismo tailerra

Urtean zehar antolatu ohi dituzten ekintzen artean oraingoan tailer bitxi bat antolatu du Goierriko Euskal Eskolak. Datorren azaroaren 17 eta 24, eta abenduaren 1ean goizeko hamarretatik ordubetetara malabarista tailerra izango da diabololo, pilota, mazo edo suarekin malabarismoak egiten ikasi nahi duten guztientzat. Ikastaroko irakaslea Donostiako Urtxintxa eskolako Iñaki Agirrezabal izango da eta bertan parte hartzeko baldintza bakarra, 15 urtetik gorakoa izatea da. Malabarismoa egiten ikasi eta ondo pasa nahi dutenek azaroaren 9 baino lehen eman beharko dute izena Gerriko liburudendan edo 943- 88 65 00 telefonoan. Ikastaroaren kostua 5000 pezetakoa izango da eta hamabost pertsonako taldea osatu beharko da gutxienez, hau aurrera atera ahal izateko.

Aurtengo ikasturterako Lazkaoko udalak ere zenbait ikastaro antolatu ditu: egur taila, altzarien zaharberritzea eta etxe barruko apainketa eta diseinua, hain zuzen. Ekaina bitartean iraungo duten ikastaro hauek hasi dira dagoeneko; hala ere, norbait animatuz gero, oraindik izena eman eta ikastaro hauetan hasteko garaian dabil, oraindik toki libre geratzen baitira.



Jubilatuen eguna

Azaroaren 11n, San Martin egunez ospatuko da Jubilatuen eguna aurtengoan ere. Igande horretarako, Atsedentoki jubilatuen elkarteak, Udalaren babesarekin, urtero bezala egitarau bete-betea prestatua du. Hona hemen xehetasunak:

11:30etan: Meza Nagusia hildako jubilatuen alde.

Ondoren: Elizako arkupeetan, bertsolariak.

Jarraian: Salda beroa Atsedentoki elkarteak.

14:15ean: Bazkaria Bitor jatatxean.

Bazkalorduan: Aurten 80 urte betetzen dituztenei sari berezia emango zaie.

Bazkalostean: Tikitixa eta bertsolariak.

Oharra: Aia eta San Gregoriotik etorri behar duzuenontzat autobusa antolatu da egun horretarako. Autobusa Aiatik irtengo da goizeko 10:45ean eta bidean geldialdiak eginez etorriko da. Itzulerara ordua, berriz, bazkalorduan adieraziko zaizue.



San Martin azokako lanak aurrera doaz

Zegaman burutzen den Aizkorri eta Urbiako Artzainen arteko gazta lehiaketan goi mailako kalitatea izan dela adierazten dute azkeneko bi urtetan Seu d'Urgellen hemendik bidalitako ordezkariak jasotako lehen bi sariak.

Datorren azaroaren 17an ospatuko da Zegaman aurtengo San Martin Feria. Urteroko herri mailako ganadu lehiaketaz gain Aizkorri eta Urbiako artzainen arteko III. Gazta Lehiaketa burutuko da. Zegamako Udalak feria hau indartzearen aldeko apustua egin zuen bere egunean eta aurten ere feriaren inguruan

hainbat hitzaldi, gazta eta ardo ikastaro eta perretxiko eta ehizari buruzko ikastaroak antolatuz.

Zegamako Udala duela bi urte Seu d'Urgellen antolatzen den Pirineotako gazta lehiaketako antolatzaileekin harremanetan hasi zen eta hartueman honen ondorioz, Zegamako Gazta Lehiaketan suertatzen diren lehen hiru sailkatuak Pirineotako gazta lehiaketa honetara joan daitez gonbidatuak izaten dira. 1999an eta 2000. urtean Zegaman sarituak izan zirenak Seu d'Urgellen lehen saria atera zuten ardi gaztatan, ber-

Labur-labur

● Duela bizpahiru aste Atsedentoki Elkarateak antolatu zuen **ibilaldi neurtuan**, honako bikoteak izan ziren lehen bi postuetan amaitu zutenak: lehenengo postuan, Bittori Arruabarrena eta Juanita Bikuñak osatu bikoteak. Bigarren postuan Joxe Etxeberria eta Fernando Martinek osatutakoak. Bestalde, partaideetan zaharrenari sari berezia eman zitzaion. Saria Mercedes Etxeberriarentzat izan zelarik. Dena den, partehartzaile guztiak zoriondu nahi genituzke lerroa hauen bidez.

● Herritar biren **heriotzen berri** izan dugu azkanaldi honetan. Alde batetik, aspaldion Lazkaon bizi zen Jexux Etxeberria Arrondo, bere bizitza antigoaleko gauzak bildu eta konponduz, bilduma ikusgarri eta kalkulazina osatzeari eskaini ziona. Bestetik, Joxe Maria Etxeberria Aizpurua, Atsedentokiko lehendakari izan zenean orrialde honen kolaboratzaile izana. Bide batez, lerro hauen bidez, Etxeberria Aizpurua sendiak eskerrak luzatu nahi dizkizue hileta elizkizunetara etorri zineten guztioi. Doluminak bi sendiei.

Agurtzane Bikuña

1926an jaioetakoek kinto bazkaria

1926an Zegaman jaioetakoek edota urte horretan jaio diren kanpotar zegamartuek kinto bazkaria dute datorren azaroaren 25ean. Lehenik, Zegamako San Martin Parrokian elkartuko dira 12:00tako meza entzunez eta ondoren Otzaurteko Bentan izango dute bazkaria. Bertan parte hartu nahi duenak dei beza honako telefono hauetara azaroaren 20rako: 943 801379 (Justina) eta 943 800045 (Felipa).

Amezti Mendi elkartearekin irteera

Azaroaren 18an burutuko dute Amezti Mendi Elkartekoek irteera hilabete honetan. Irteera goizeko 8:00etan izango da eta ibilbidea honako hau: Atxukoaldai-Aginaran-Olano-Iturgain-Atxukoaldai. Irteera honetan parte hartu nahi duenak goizeko 8:00etan Zegamako plazara agertu behar du.

tatik Zegaman izaten diren gazten goi mailako kalitatea ondoriozta dezakegarrik.

Halaber, aurten ere profesional mailako pilota partiduak izango ditugu azaroaren 16an,

Herritarrentzat sarrerak aurrez salgai jarriko direlarik.

Iganderako berriz, Zegamako Aitxuri Herri Eskolako Guraso Elkartearekin hitzarmen bat sinatu da aurten ere,

igande arratsaldean, azaroaren 18an, Takolo, Pirritx eta Porrotxen emankizuna kudeatu dezaten Udalaren dirulaguntzaz.

Egitarau zehatza 13. orrialdean duzue.

Azken finean, San Martin Feriaren inguruan, denentzat gustagarri gerta daitezkeen ekintzak antolatzea izaten baita helburu.

Eduarne Albizu




GOIMEN ELARTEA

Santa Maria, 4 ORDIZIA

Tel: 943 161 244 Faxa: 943 161 463

E-posta: goimen@euskalnet.net



1. saria: 150.000 pta.
2. saria: 75.000 pta.

Gainera, proiektua
Goierriin garatzen bada
inbertsio dirulaguntza

**Idea
berritzaileen
sariketa**

Lanak aurkezteko epea:
Azaroak 15

Gai posibleak:

✓ Ohiko produkzio
joeretan oinarrituta,
aldaketa ereduga-
rriak edota produk-
tuari balio erantsi
handiagoa ematea
lortuko luketen eki-
menak.

✓ Goierriko eskual-
dean ohikoak diren
produktuetatik kanpo
nekazaritza arloan
burutu daitezkeen
ekimenak.

✓ Nekazaritza jar-
dueretatik kanpo,
beste jarduera osa-
garriak, ingurugiro
mailan, nekazal kul-
tura arloan.. burutu
daitezkeen ekintzak.

Proiektua Goierriko eskualdean garatu daitekeena izan behar da eta saria eskualdean gauzatu gabeko proiektuei emango zaie.

ZEGAMAKO SAN MARTIN FERIA 2001

URBIA ETA AIZKORRIKO
ARTZAINEN ARTEKO

III. GAZTA TXAPELKETA

HERRI MAILAKO

**ABERE ETA GANADUEN
LEHIAKETA**

**AZAROAK 17
LARUNBATA**

Antolatzailea:



**ZEGAMAKO
UDALA**

Laguntzaileak:



kutxa
zuri esker



Gipuzkoako Foru Aldundia
Nekazaritza eta Ingurugiro Departamentua

**GORTASUNAREN
AURKAKO
PREBENTZIO
JARDUNALDIAK**

**GONBIDAPENA
AZAROAK 12-13-14an**



**AUDIFONO DIGITAL
BERRIAREN moldaketan
50.000 pta-rainoko
deskontua**

**Dohaineko eta konpromezurik gabeko
entzumen azterketa elektronikoa**



GAES

ENTZUMEN ZENTRUA

ESKA EZAZU HITZORDUA ALDEZ AURRETIK

ORDIZIA
MULTIOPTICAS LARRAÑAGA
J. M. Barandiaran Enp.
© 943 88 99 88

**ETA JASO
EZAZU
OPARI
EDER BAT!**

Goierritarra rekin



**Goierritarraren
aldeko errifak
erosiaz
eman laguntza
hamabostero
Goierriko berri
ematen dizun
aldizkariari**

Errifak Goierri guztian salgai

San Martin jaiak

Hemen ditugu aurten ere San Martin jaiak. Egitaraua prest dago dagoeneko. Festa go-go besterik ez da falta orain. Jarraian duzue egunez eguneko ekitaldien berri.

Azaroak 9, ostirala:

20:00etan: Txupinazoa.

20:30ean: Herri afaria.

Ondoren: Epelde eta Larrañaga trikitilariak.

Goizaldera: Mozkorrentzako toka txapelketa.

Azaroak 10, larunbata:

12:00etan: Derbia: Arama-Itsasondo.

15:45ean: Mus txapelketa herrikoia.

16:00etan: Jolas parkea haurrentzat.

20:30ean: Gaztaina jana.

Ondoren: M'n ezten eta Furundarena.

Atsedenaldira: Herri kirolak.

Azaroak 11, igandea:

Herriko trikitilariak alaituko dute eguna.

9:00etan: Alegiko txistularien goiz eresia.

10:00etan: Meza Nagusia.

Ondoren: Soka dantza.

11:30ean: Hamaiketakoa.

12:30ean: IX. Pala txapelketaren finala.

18:00etan: Ezkondu eta ez-konkabeen arteko herri kirol erronka.

00:00etan: Festei amaiera emateko azkeneko traka.



Xabier Jimenez Euskadiko motokros txapelduna

Euskadiko motokros txapelketa bukatu da eta lau lasterketa jokatu ondoren, Xabier Jimenez lehen sailkatua izan da junior mailan.

Ez da irabazten duen lehen aldia. Joan den urtean ere txapelduna izan zen jubencil mailan. Aurten 125 c.c.ko motorrera pasa da eta ahalegin handia egin ondoren zenbait emaitza on atara ditu hainbat txapelketetan.

Laguntzaile ugari ditu Xabier Jimenezek eta lerro hauetatik esker ona azaldu nahi die. Era batera edo bestera Xabier laguntzen dutenak hauek dira: Lazkaoko Zure-Moto, Idiazabalgo Tecnomodul, Zumarragako Eusko-Rot, Beasaingo Hierros Etxepare, Legorretako Recuperaciones Goierri eta Eibarko Transmisiones Europa Iris.



ARAMAKO UDALA

Arama Gipuzkoako herririk txikienetako bat da (1,3 kilometro karratu ditu). Ibarrak errota Erret Bidetik Aramara sartzeko zegoen zubi ondoan dago kokatuta. Aurreko mendekoa da eta, etenalditxo bate ondoren, oraindik martxan dago. San Martin parrokia da herriari nortasuna ematen diona. Bertan dagoen Amabirjinaren taila da aintzinatik jasotako argibide bakarra. 1993tik estalitako pelotaleku zoragarri bat du. Ezagutzekoak dira Apaiz etxea, Jriarte eta Jturrioz baserriak.

Azaroaren 11n dira festak. San Martin bezperan gaztain jatea izango dugu: gaztainak eta ardoa Udalaren kontu. Herriar nahiz kanpotarrak gonbidaturik gelditzen zarete.

ZINEA

GOIENIZ

GOIENIZ

Azaroak 8, 'In the mood for love' filma eta 'Los Girasoles laburmetraia', 21:00etan, Usurbe Antzokian.



'Deseando amar'

Wong Kar-Wai
(Txina, 2000)

ORDIZIA

'La pareja del año'.
Osteguna 1, 7:30 - 10:15.
Larunbata 3: 7:30 - 10:15.

'El pacto de los lobos'.
Ostirala 2: 10:15
Igandea 4: 7:30 - 10:15.
Astelehena 5: 7:30.

'El cisne mudito'.
Igandea 4: 4:45.

Hong-Kong 1962an. Kazetari batek gela bat alokatu du bere emaztearekin bizitzeko. Hara doazen egunean, kasualitatez, bulegari lan egiten duen emakume dotore eta erakargari bat pareko gelan bizitzan hasi da. Halako batean, beren ezkonkideak maitaleak direla konturatuko dira, bata zein bestea; handik aurrera gauzak aldatu egingo dira.

Kar-Wairen kamarak isilik jarraituko ditu bi adarduren pausoak eta elkar kontsolatzeko asmoaz, bata bestearengana nola hurbiltzen diren ikusiko dugu.

musika

ATAUN:

Azaroak 9, Rock kontzertua Oargin, 21:00etan: Leher eta Barley Juice.

Azaroak 9, Drindots, 24:00etan.

Azaroak 10, Sakatrik, 24:00etan.

Azaroak 18, Organo kontzertua, XXXII. Bach musikaldiaren barruan, San Martingo elizan, 18:00etan.

ORDIZIA:

Azaroak 6, Letoniako Kamer Koris abesbatza, Eliz Parrokian, 20:00etan.

Azaroak 7, Hungariako Banchieri Singers taldea, Eliz Parrokian, 20:00etan.

Azaroak 22, 'Le Badinage' taldea, Eliz Parrokian, 20:00eta, XVI. Musika Barrokoaren Egunak barruan.

pailazoak

ATAUN:

Azaroak 10, Poxpolo eta Mokolo pailazoak, Auzoeta kiroldegian, 17:00etan.

ZEGAMA:

Azaroak 18, Takolo, Pirritx eta Porrotx, pilotalekuan, 17:00etan.

antzerkia

ATAUN:

Azaroak 10, Goaz taldearen Traben-espektakulua lana, 19:00etan, Herri antzokian.

ORDIZIA:

Azaroak 15, Haurrentzat kale antzerkia: Goloka Park ikuskizuna.



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA



Barandiaran
ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 **Senpere, 7 BEASAIN**

dantzak

BEASAIN:

Azaroak 10, Aurtzaka dantza taldea, Lugoko 'A Buxaina' musika eta dantza taldea eta 'Cova Nuada' pandereitarra taldeak, 18:00etan, Loinazko San Martin plazan.

bertsoak

ATAUN:

Azaroak 9, Bertso jaialdia, herri antzokian, 22:30ean: Joxe Agirre, Andoni Egaña, Anjel Mari Peñagarikano, Jexux Mari Irazu, Jokin Sorozabal, Joxe Munduate eta herriko bertsolari gazteak, Aitzol Munduate, Iban Urdangarin, Haitz Aierbe eta Oier Zurutuza. Gai-jartzailea: Jon Aizpurua.

mendi irteerak

Beasaingo mendizaleak

Azaroak 11, Gorbeia.

Beasaingo argazki zaharren erakusketa eta bilketa

XIX. mendearen bukaeratik gaur egun arte Beasainen emandako gertaerak erakusten ditu argazki erakusketa honek. Igar-tza jauregian daude ikusgai, larunbat eta igandeetan: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

Aldi berean herritar guztiei deia zabaltzen zaie, interes orokorreko gertaerak azaltzen dituzten argazki zaharrak dituzten pertsona guztiei, Udalari argazki hauek utzi ahal izateko.

Udalak digitalizatu egingo ditu argazki hauek bilduma bat sortuz. Honela, jabearen laguntzaz, fitxa bat osatuko da iruditik atera daitekeen informazio guztiarekin: noiz eta non aterata dagoen, nortzuk agertzen diren, ospakizunen bat baldin bada, zer nolako ospakizuna den. Argazki batek gure herriari eta bere biztaleei buruz eman dezakeen informazio guztia ateratzea da helburua. Kasu guztietan originala bere jabeari itzuliko zaio. Beraz, inork etxean Beasaingo argazki zaharrik izango balu, Udaletxeko harrera bulegoan egingo da argazki bilketa abendua arte.

hitzaldiak

ORDIZIA:

Azaroak 13, Ikasi Makusi egitarauaren barnean, Koldo Zuazoren 'Ordiziako Euskaratik Euskararen Herrira' hitzaldia, 19:00etan, Barrenan.

erakusketak

BEASAIN:

Azaroaren 11ra arte, X. Aire zabaleko pintura-lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketak, Usurbe antzokian.

Urtarrilaren amaiera arte, Beasaingo argazki zaharren erakusketa Igar-tza jauregian. Ordutegia: larunbat eta igandeetan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

ORDIZIA:

Azaroaren 20 ra arte, Eduardo Txillidaren 'Juan Sebastian Bach-en omenaldia' erakusketa, Barrenan.

Azaroaren 6tik 12 ra arte, Okupgraf Grafika Topaketen barnean, 'Marrazkiak margotu' proposamena, Barrenan.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Azaroak 10-11: Arriola
(Plaza Nagusia, Ordizia). 943 880628.

Azaroak 17-18: Urbizu
(Kale Nagusia 8, - Beasain). 943 880232.

VOLVO

TOYOTA



ŠKODA

Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

Kubako bidaietan berezitasuna

Koba

Bilbo-Habana-Bilbo
Azaroaren 1etik 29ra
93.000 pta.

Elosegi, 17 LAZKAO
Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971
e-posta: algoz@wanadoo.es

Olagi

Sagardotegia

Egurdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**

IKASTE

AKADEMIA

Goierriko Akademia integrala

Interneten: Kontsultatu irakasleari
Beharrezko informazioa aurkitu
ikastekakademia@latinmail.com
<http://usuarios.tripod.es/ikastek>

Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120 **BEASAIN**

ESKOLA LAGUNTZA

- ✖ Gai eta maila guztiak
- ✖ Lehen Hezkuntza
- ✖ DBH, DBHO, Modulook
- ✖ Zikloak
- ✖ Unibertsitate maila

GOIERRIKO UNIBERTISTATEA

- ✖ Marrazketa
- ✖ Fisika
- ✖ Matematika
- ✖ Teknologia

TAILERRAK

- ✖ Ortografia, kaligrafia
- ✖ Irakurmena, idazmena
- ✖ Testu komentaketa
- ✖ Matematika, kalkulua
- ✖ Logika, arrazionamendua

IKASKETA ARAZOAK

- ✖ Errendimendua
- ✖ Atentzioa
- ✖ Ohiturak, metodoak
- ✖ Emozioen kontrola

Etxebizitzak

salgai

➔ Ormaiztegin pisua salgai. 2 logelakoa. Kanpoaldera begira. Eguzkitsua. Bista onak. 21:00etatik aurrera deitu. 943889854.

➔ Tolosan etxebizitza berritua salgai. 943654679.

➔ Donostian, Egian, etxea salgai. 2 logela. 659729135 (arratsaldeko 5etatik 9etara deitu)

➔ Etxebizitza salgai Errioxan. Bi familientzako egokia. 629223722.

konpartituak

➔ Pixukide bat bilatzen dugu Lizarran pisua osatzeko. 699876702.

errentan

➔ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da. Nekazal gunea. 948539381.

lokalak

➔ Beasainen lokala salgai, 72 m²koa. Prezioa negoziagarria. 943883783. 12:00etatik 14:00etara eta 21:00etatik aurrera deitu.

➔ Beasainen, Juan XXIII. kalean lokala salgai. Gremioentzako egokia eta garajeetarako zatikatzeko aukera. 943028462.

Animaliak

erosi

➔ Pastor aleman edo euskal artzain txakurkumeak erosiko nituzke. 653011930.

salgai

➔ 20 bat ardi salgai. Latxa arrazakoak. 943148341.

Ibilgailuak

salgai

➔ Ford Scort ibilgailu gorria salgai. 1.3 berunik gabeko gasolina, 96. urtekoa, SS-AW. 73.000 kilometro ditu. Egoera oso onean, beti garajejan gordetakoak. 943087261.

➔ Citroen Zx 1900 turbo diesela salgai. NA-AN. 28.000 km. 679389420.

➔ Fiat Ducato autokarabana salgai. 1.900 TD. 5 plazakoa. 96. urtekoa. Extrekin. Beti garajejan gordetakoak. 667639120.

➔ Suzuki Vitara Har-top salgai. VI-S. 943187483.

➔ Hyundai Coupe 2000, 16 balbula, salgai. SS-AX. Extrekin. 619460248. Iban.

➔ Aprilia SR50 markako Scuter motorra salgai. Berria. 943884957. 14:00etatik aurrera deitu.

➔ Saab 93 diesela salgai. SS-BH. 943027912 - 699511901.

➔ Volkswagen Polo Confort Plus diesela salgai. SS-BB. 45.000 km. 1.150.000 pezetan. 943883504. Begoña. Denda orduetan deitu.

➔ Opel Corsa GSI salgai. Engantxearekin. SS-AF. 943161254.

➔ 99ko krosetako Kawasaki motorra salgai. 627411764.

Bestelakoak

erosi

➔ Gramateka deitu dudak kolekzionaroko erosiko nituzke: mundu osoko edozein hizkuntzaren gramatikak, metodoak, hiztegiak...; bereziki greko eta latinarrenak eta hizkuntza minorizatuena; eta azken hauen artean, batez ere, Ameriketako hizkuntza autoktonoak. Misio-laria, bidaiaria, edozein jartzeko hona nire telefonoa; 943213396. arnotegi@euskalnet.net.

➔ Euskarazko liburuak erosten ditut, 1950 aurrekoak. Gai guztietakoak interesatzen zaizkit eta ondo ordaintzen ditut. Gotzon. 649699022.

OSKARBI
OINETAKOAK

De Alamo Martens

Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
88 19 44 ORDIZIA

ZUHAIZKI
S. A. L.

ZURGINDEGIA

X LEIHOAK, ATEAK eta abar

X ESKAILERAK NEURRIRA

Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

PSIKOLOGI KLINIKOA

Argi

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

AURRE ZITA
943 887 221
610 020 041

SEGURA IRRATIA

F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN

salgai

➡ Sutarako egurra saltzen da. 2 metrora moztua eta 5 pezeta kiloan. Xabier. 943885006.

➡ 4. saileko Golf GTIren BDS motako llantak salgai. Egoera onean. 652712506.

➡ Roland BM-100 ba-juarentzat 100 w bozgo-railua salgai (60.000 pe-zeta). Oso egoera one-an. 943880343.

➡ Ordenadoreko alta-bozak salgai. 943882278.

➡ Lynx butano bero-gailua, ia berria, salgai, 6.000 pezetan. 943880343.

➡ 35 CD salgai, Eus-kaldunon Egunkariako bildumak. Euskal musi-ka, klasikoa... 943882278.

➡ Egongelako altza-riak salgai. Antigoale-koak, euskal tailarekin. Mahaia, 6 aulki, bi ku-txa eta erlojuaren kaja. Prezio onean. 943163084. 21:00etatik aurrera deitu.

➡ Furststein etxeko pia-noa salgai. 943885340.

➡ Egongelako egu-rrizko altzaria salgai. Egoera onean. Altuera 211 cm, zabalera 172 cm eta sakonera 40 cm. 60.000 pezetan. Bi lan-para opari. 678846282 (9etatik 12etara deitu).

➡ Somier mugikorra salgai, motorrarekin. Erabili gabea. 943-652893

➡ Eskopeta super-puesta saltzen da. 12 milimetroko kalibreduna. 943885936. 21:00etatik aurrera dei-tu.

➡ Ordenagailua sal-gai, inpresora eta guzti. Aukera ezin hobea. 50.000 pezetan. 943027818.

➡ Goierritarra, Argia eta Jakin aldizkari-ak bildumak opari. 943450697.

Lana

eskaerak

➡ Gazte bat behar da igeltsero bati laguntze-ko, Ordizian. Lan kon-tratua. 617566744.

➡ Herriz herri festetan jotzen dabilen trikiti tal-de baterako bateria jo-lea eta gitarra elektriko jolea behar dira. 652741093.

➡ 21 urteko neska, arratsaldeetan umeak zaintzen lan egiteko prest dago. Esperien-tziaduna. 943883654.

opari

➡ Astebukaerarako zerbitzari euskalduna behar da. Esperientzia-duna bada hobe. 943880044.

➡ Neska euskalduna behar da zerbitzari lane-rako. Eguneroko lana. 943654009.

➡ Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakume bat behar da Beasainen. 943887484..

➡ Neska bat behar da etxeko lanak egiteko, orduka. 650728717.

➡ Zerbitzaria behar da Gaintzan. 943886243.

eskaintzak

➡ Magisteritzako ikaslea, ingeleran espe-zializatua, klaseak ema-ten ditu. 646280640.

➡ Umeen hezkuntzan espezializatuta dagoen 22 urteko neska prest dago lanerako. Arratsal-deetan. 619656463.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurlaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

GALDARAGILE edo KALDEREROA
Goierrin. Erref. 63375/3

PINTOREA
Beasainen. Erref. 59754/3

HARRERAGILE edo ERREZEPZIONISTA
Goierrin. Erref. 63287/5

INGENIARI TEKNIKO ELEKTRONIKOA
Amezketan. Erref. 59589/3

AROTZA
Goierrin. Erref. 61091/3

ITURGIN APRENDIZA
Goierrin. Erref. 61005/5

GESTIO eta INFORMATIKA SUSTATZAILEA
Olaberrian. Erref. 59507/2

SOLDATZAILEA
Tolosan. Erref. 60857/6

ENPRESAKO ATSa
Deba Goienan. Erref. 61015/4

MEKANIKA ARLOKO LANGILEA
Tolosan. Erref. 62312/3

TORNULARI ETA FRESATZAILEA
Tolosan. Erref. 62769/1

FINANTZA PRODUKTU AHOLKULARIA
Deba Goienan. Erref. 63304/1

HAURRA ZAINDU ETA ETXEKO LANAK EGITEKO LANGILEA
Donostialdean. Erref. 63308/1

ERAIKUNTZAKO LANEN ENKARGATUA
Donostialdean. Erref. 63661/1



Pottoka

KAFETEGIA

● Pintxo hotz eta beroak

● Ogirtartekoak

Legazpi kalea, 3

ORDIZIA

GOIERRITARRA doan jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutzara bidali



1982ko umeen eguna Ataunen

Ataun San Martingo jaietako argazkia da, 1982. urtekoa. Umeen egunean, zenbait haur, mozorrotuta.

SUKIA HARATEGIA

Festa onak pasa herritarrok!

San Martin

ATAUN

☎ 943 18 03 45

JOSUNE arrandegia

☎ 943 18 03 67 ATAUN

San Martin jai zoriontsuak!

IÑAKI BARANDIARAN

arrandegia

☎ 943 88 00 56 San Jose, 29 LAZKAO

JOAKIN ZUBELDIA PINTURA-LANAK



☎ 943 18 02 46 ATAUN

*San Martin jai
zoriontsuak guztioi!*

943 18 03 64
San Martin auzoa
ATAUN

Okindegia

*ERRATO
UNDI*

Grupo Bateak

SEGURUEN PROFESIONALAK

Jai zoriontsuak denoi!

MUNDUATE

Elosegi, 1- behea

Tfnoa.: 943 88 86 20

Tfno. mugikorra: 609 49 14 41

Faxa: 943 88 91 18

LAZKAO

Bittor

Jatetxea

*San Martin
zoriontsuak!*



- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Bataioak
- Oturuntzak...

● Menua eta karta

Aparkalekua

Lorategi pribatua

Umeentzako parkea

☎ 943 18 00 33 ☎

☎ 943 18 00 84 ☎

ATAUN



Guk ospatzen dugun
bitartean zuk aurreztuko duzu

-%25

Swissflex koltxoietan,
somier batekin batera
erosterakoan

2001eko Abenduaren
15erarte



zure etsairik gaiztoena izango da



OHEAK ETA OSAGAIK - EDREDOI ETA ZORRO NORDIKOAK - BURUKOAK - IZARAK - KOLTXOI ESTALKIAK

ALFONBRAK - KUTXINAK - GORTINAK - BESAULKI MANTAK - LUMA EDO FIBRAZKO NORDIKOAK...

...ETA AURRERANTZEAN

keyton

"MULTI-MASAJE" BESAULKIEN

AUKERA PAREGABEAZ GOZATZEKO AUKERA IZANGO DUZU, ZATOZ PROBATZERA, JEIKITZEKO GOGOAK



BETIRAKO UTZIKO ZAITU.



model
tecno
multi-masaje

